

hariak

2025eko apirila

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Honako hauen laguntzarekin egin da argitalpen hau: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID), eta eLankidetzeta - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, 2023ko proiektu honen esparruan: *Euskal-kolonbiar artikulazioa, hezkuntza emantzipatzailea eta ikerketa kritiko kolaboratiboa esperimintatzeko, ikasteko eta komunikatzeko*. Testuen edukiaren erantzukizuna Hegoarena baino ez da, eta ez dute nahitaez AECIDen eta eLankidetzaren iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizábal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

M^a Luz De la Cal Barreda

Jone Martínez Palacios

Jaume Martínez Bonafé

M^a Jesús Martínez Usarralde

Gema Celorio Díaz

Amaia del Río Martínez

Lege-gordailua: BI-1805-2016

Hariak, 16.zk, Ikuspegi lokal-globala, 2025eko apirila

ISSN: 3045-8609

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Azaleko argazkia:

Joseba Sainz de Murieta.

Eskertzen dizuegu ale honetarako emandako laguntza.

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Finantzatzaileak:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea, 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza, 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.eus



aurkibidea



2

editoriala

Ikuspegi lokal-globalak aukera ematen du esangura handiagoa duten eta testuinguruan kokatuta dauden ezagutzak sortzeko

Alejandra Boni Aristizábal

4

sakonean

Ikuspegi lokal-globala pentsatzea, gizarte-erlaketarako hezkuntza-proposamena oinarri hartuta

Juanjo Celorio Díaz, Gema Celorio Díaz eta Amaia del Río Martínez

14

solasean

Ekimen berriak behar ditugu: agian aldaketaren internacional bat, Foro sozialen tankerakoa

Montserrat Galceran Huguet

20

ekin lanari

Granadako azken adierazpena

Unibertsitate Hedakuntza Kritikoari buruzko I. Jardunaldiak

Zergatik da beharrezkoa trantsizio energetikoa deskolonizatzea?

Josefa Sánchez Contreras eta Alberto Matarán Ruiz

26

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak ¡Reclama tu mercado! • Zona Wao

argitalpenak Abramos las cancelas. La lucha de las jornaleras de Huelva por otro modelo de agricultura • El saqueo continúa. Pobreza y desigualdad extrema, la herencia del colonialismo

erakundeak Kavilando. Gizartea eraldatzeko ikerketarako diziplinarteko taldea • Palestinaren aldeko unibertsitate-sarea

ezinbesteko agenda Hezkuntza Kritiko eta Inklusiboaren Nazioarteko 4. Kongresua. Gizartea eraldatzeko hezkuntza kritikoaren alde • Ekonomia Feministari buruzko IX. Kongresua. Ekonomia feministak kapitalismoaren aurrean: analisisa eta alternatibak

30

matxino artean

Unibertsitate hedakuntza kritikoa

Hegoa hezkuntza taldea

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Ikuspegi lokal-globalak aukera ematen du esangura handiagoa duten eta testuinguruan kokatuta dauden ezagutzak sortzeko

Zenbaki honek Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (GEH) ikuspegi lokal-globala du aztergai, baita ikuspegi horren garrantzia ere, esangura handiagoa duten eta testuinguruan kokatuta dauden ezagutzak sortzeko, gizarte-erlaketari bide eman diezaioten. Zenbakiaren orrialdeetan honako hau iradokitzen da: lokalaren eta globalaren arteko ikuspegiak aukera ematen duela hegemoniaren aurkako aliantzak indartzeko eta ikuspegi ekosozial, feminista eta dekolonialean oinarritutako narratiba eta proposamen alternatiboak garatzeko.

Zenbakiari Hegoaren hezkuntza-taldeak ematen dio hasiera, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuak, ikuspegi lokal-globala gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa zergatik den aztertuz. Bertan arrazoitzen dutenez, ikuspegi horrek munduaren ikusmolde sinplistik zedarritzen ditu, eta erraztu egiten du planetako herri guztiek gizarte- eta ingurumen-justiziako agertokietarantz urrats bat ematea.

Horrez gain, ikuspegi hori funtsezkoa dela proposatzen dute, lankidetzaren sektoreko dinamika tradizionalak zalantzan jartzeko. Hegoak dioenez, estrategia eraginkorra da tokiko gaitasunetatik arazo globalei heltzea, sistemaren egiturazko aldatetetan erantzukizuna eta erantzukidetasuna sustatzen baititu. Alde horretatik, lankidetzaren eta hezkuntzaren arteko dikotomia gainditzea iradokitzen dute. Izan ere, errotuta dagoen logika horrek sektorearen ahalmen eraldatzailea mugatzen du.

Ikuspegi lokal-globalari esker eraiki daitekeen ezagutza erabilgarriagoa da gizartea eraldatzeko, eta ideia bat baztertzen laguntzen du: irtenbideak eta jakintza Ipar globaletik soilik datozen ustea. Horrela, GEHk erronka jotzen dio gizarteak ezarri digun ildo bakarreko pentsamendu horri, eta gizarte-proiektu duin, feminista eta iraunkorrek hauspotzen ditu. Montserrat Garcerán katedratikoak zenbaki honetan adierazten duenez, ikuspegi lokal-globalak zalantzan jartzen du gizarte-zientzien ustezko objektibotasuna, eta erdigunean jartzen du zeinen garrantzitsua den eraldaketaren aldeko subjektuen proposamenak entzutea.

Ikuspegi lokal-globalak beste ekarpen garrantzitsu bat ere egiten du: komunitateei gizarte-prozesuak garatzen laguntzen die, tokiko borrokak dinamika globalekin lotzeko aukera emanez. Errazago ematen ditu jakitera beste lurraldeetako gizarte-mugimenduak, eta ez hori bakarrik: ezagutzak sortzen ditu tokian bertan egindako lanetik, baina tokikoaz harago helarazten ditu, prozesu globalekin lotura eginez. Kontua ez da komunitateak inplikatzeari, aldaketak beren egin ditzaten; gakoa haien beraiena den eta beren interesekin eta eskaerekin bat datorren proiektu bat eraikitzea da, eremu globalarekin harremanetan jarrita.

Montserrat Garceránek izandako elkarrizketak balio handiko hausnarketa bat ere badakar, ikuspegi lokal/globalaren garrantzia ulertzeko. Elkarrizketan nabarmentzen duenez, politika eraldatzaileak ezartzean izandako arrakastak eta porrotak eremu globalean zabaltzen dira, eta ikaskuntzak sortzen dituzte, beste testuinguru batzuetan. Era berean dio ikuspegi geopolitikoak lotura lokal-globala lausotu dezakeela. Izan ere, lehentasuna eman diezaieke alderdi globalei eta berehalako emaitzei, itzal emanez tokiko alderdiei eta epe luzeko prozesuei. Alderantziz, ikuspegi lokal-globalari esker, hobeto uler daiteke sistemak nola funtzionatzen duen, eta zein dinamikek eragiten duten, bereziki, planetako lurralde batean eta bestean.

Alejandra Boni Aristizábal,
Valentziako Unibertsitate Politeknikoko irakaslea.



Argazkia: Hegoa.

Ikuspegi lokal-globala pentsatzea, gizarte-eraldaketarako hezkuntza-proposamena oinarri hartuta

Hegoa Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko hezkuntza-taldea. 1987an hasi zenetik, hezkuntzari berariaz eskainitako talde bat izan du Hegoak. Hezkuntzak bilakaera izan du historian zehar: hasiera bateko Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegitik, egungo Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren ikuspegira arte. Ibilbide horretan txertatu izan diren askotariko ikuspegi kritikoek (feministak, ekosozialak, dekolonialak...), egun lantzen gabiltzan hezkuntzaren ulerkeraz zehazten eta aberasten dute. Gure helburua honako hau da: hezkuntza-ekintzaren noranzkoa ulertzea eta oinarritzea, bertako ikaskuntzak gai izan daitezen gizartea mobilizatzeko, egungo krisi zibilizatorioaren aurrean. Gaur egun Juanjo Celorio Díaz, Gema Celorio Díaz eta Amaia del Rio Martínez gara taldeko kideak.

Hegoako hezkuntza-taldearen adierazpen-tokia

Hedapena izan du globalizazio neoliberalak –kapitalista, patriarkal eta kolonialak–, eta horrek sortutako deribek krisia eragin dute munduan.

Krisi horretan bizi garela egiaztatzeak ezinbesteko bihurtu du begirada hori aplikatzea. Bereziki gure helburua errealitatea sakonki ulertzea bada, eta horren bidez ekosozialki bidezkoak diren orainak eta geroak irudikatu nahi baditugu.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH) jarraian aurkezten dugun ikuspegi lokal-globalari heltzeko esparrua da. Urteetan zehar eraikitako interes bat da, beste kolektibo eta gizarte-mugimendu batzuekin eztabaidak partekatzeko, baita kezka pizteko ere, eragin eraldatzaile handiagoa duten esperientziak sortze aldera.

GEHren proposamena pixkanaka hornitzen dute era bateko eta besteko ikuspegi kritikoek, eta begirada lokal-globala da ikuspegi horietako bat. Gure ustez, hezkuntza-ikuspegi hori lankidetzan jarduteko ikaskuntza interesgarria izan daiteke. GEHk ohartarazten duenez, Mendebaldean sortu eta Hegoa (hegoalde globala) jomugatzat duten ekimen askok ikuspegi partzial eta mugatuak dituzte abiapuntutzat, eta eredu oso estandarizatuei egiten diete men. Jarduketa gehienak garapenezaleak dira. Ikuspegi lokal-globala txertatzea lagungarria zaigu mundua elkarren arteko harremanetik pentsatzeko eta sortzeko, Iparra/Hegoa eta lankidetzatza/hezkuntza dikotomieiei aurre egiteko.

Lokala-globala ikuspegia aplikatzeak gure jardunbideei ematen dizkien gakoak xehatzen hasi aurretik, zentzuzkoa izan daiteke nazioarteko panoraman ikusi ditugun aldaketa garrantzitsuenak berreskuratzea, ikuspegi horren sorrera kokatzen laguntzen baitute.

Begirada bat berriki gertatutako testuinguru historikoari, ikuspegi lokal-globala ulertzeko

Azaleko azterketa azkar bat eginez gero, azken 80 urteetako nazioarteko testuingurua bereizgarritu duten ezaugarri garrantzitsuenak nabarmentzeko eta tokiko ikuspegi globalaren azterketa erreferentziatzat hartuta, hiru aldi nagusi bereiz ditzakegu.

Mundu polarizatu baten sorrera

Gerra hotza. II. Mundu Gerra amaitu ondoren, eta Gerra Hotz betean, mundua elkarren aurkako bi botere-bloke handiren inguruan eratu zen. Aurkakoak ziren, ez soilik beren proiektu politiko eta sozialagatik, baizik eta bestelako eredu ekonomikoak ere proposatzen zituztelako, baitako gizarte eta eragin-eremuetarako. Estatu Batuak eta Sobietar Batasuna agertu ziren, hurrenez hurren, pro-

“lagungarria zaigu mundua elkarren arteko harremanetik pentsatzeko eta sortzeko, Iparra/Hegoa eta lankidetzatza/hezkuntza dikotomieiei aurre egiteko”

posamen liberal kapitalistaren eta proposamen sozialista komunistaren ordezkarietat.

Bandungeko Batzarretik aurrera (1955) hirugarren bloke bat agertu zen; garai hartan Hirugarren Mundu izena hartu zuen. Bloke horretan zeuden iragan koloniala partekatzen zuten herrialde guztiak. Ildo horretan sortu zen Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua (1961), eta botere-blokeen arteko gatazkan bietako inoren alde ez egiteko berariazko hautuari heldu zioten. Taldea urrun zegoen bi bloke handien boterea izatetik, eta ez zuen nahikoa gaitasunik nazioarteko testuinguruan eragiteko. Hala ere, bere independentziari eta subiranotasunari eutsi nahi izan zion, ikuspegi global hain polarizatu horretan. Garapen-bidean dauden herrialdeen arteko lankidetzatza eta garapena sustatu zuten, eta haien interes eta beharrak lehenesteko kanpo-politika baten alde egin zuten. Beraz, nahiz eta bi bloke nagusien botererik ez izan, haiek egoitea eta ahotsa izatea oso garrantzitsuak izan ziren garaiko dinamika globalean. Hau da, erresistentzia- eta aurkakotasun-esperientzia bat gorpuztu zuten, nahiz eta bazterretik izan.

Ikuspegi lokal-globalari dagokionez, polarizazio hori lotuta dago garapenari eta lankidetzatza-politikei buruzko eztabaidekin. Horrela, garapenaren barruan daude hazkunde ekonomikoa eta nola-baiteko babes soziala berma dezaketen estrategiak, mendebaldeko munduan horretarako aukera eman zuten industrializazio-formulak aplikatuz. Lankidetzatza-politikei dagokienez, garapenerako lankidetzatza begirada eurozentrista, desarrollista eta asistentzialista du abiapuntutzat –Iparra/Hegoa ikuspegiak zedarrituta– eta ez die protagonismorik ematen herrialde hartzaileetako gizartei.

Horregatik, honako hau esan dezakegu, bat etorri 1., 2. eta 3. belaunaldiko Garapenerako Hezkuntzaren proposamenekin: nahiz eta lokalaren eta globalaren arteko dinamika agerikoa den nazioarteko harremanen bilakaeran eta horiek lurraldeetan duten eraginean, oraindik ez dela

ikusten egungo lankidetzan eta hezkuntzan. Ez, behintzat, errealtatea aztertzeko eta proposamenak taxutzeko kategoriatzat.

Globalizazioaren eraginez, tokikoa “desegiten” da. Proiektu modernizazioaren “arrakasta”

Globalizazioa. Berlingo Harresiaren erori (1989) eta Sobietar Batasuna desegin (1991) ondoren, politika atera egin zen estatu-nazioaren esparrutik, ongizatearen estatua krisian sartu zen eta estatuen boterea globalizazioaren modelatzaile gisa eratutako nazioaz gaindiko botere batek ordeztu zuen. Hori guztia neo-liberalismoak goraldia eta hedapena izan bitartean gertatu zen, eta hark babestu eta bultzatu egin zituen, subiranotasuna maila guztietan galtzearen kontura. Globalizazio neoliberalak zenbait prozesuren bitartez areagotu zuen tokikoaren eta globalaren arteko lotura, hala nola digitalizazioaren eta ekonomiaren finantzazioaren bitartez.

Kapitalismoak, goraldian egonik, inoiz ikusi gabeko hedapena izan zuen, eta arrakasta-eredu baktzat finkatu zen iruditeria kolektiboan. Horren gainean hazkunde mugagabe baten aldeko sistema ekonomiko bat ardaztu zen, garapen zientifiko eta teknologikoa baliatuta. Globalizazioak tokikoa “desegiteko” efektua sortzen duela diogu, proiektu propioen kontura hartzen duelako indar. Baztertu egiten ditu garapen modernizazioarekin bat ez datozen jakintzak, ezagutzak eta bizimoduak, zaharkitua, tradizionalak eta atzerakoiak balira bezala. Azken batean, aurrerapenaren ideia atzeratzen duten proiektutzat hartzen dira.

Kontsumoaren estimulu etengabea jada ageriko egiten hasi zen mendebaldean, dinamismo ekonomikoaren aurreko urteetan. Oraingoan, kontsumo hori hiperkontsumo bilakatu da, kapitalismoak bultzatuta. Batetik, ekoizpen-kontsumo zurrumbiloba elikatzeke beharrezko praktikatzat ageri da, hazkunde ekonomikorako beharrezko zutarri. Eta, bestetik, kontsumo horrek proiektu kultural kapitalista baten nagusitasuna dakar, eta norbanakoen eta taldeen nahiei eragiten die. Pertsonak nahi horien bitartez gauzatzen dituzte gizartean gora egiteko asmoak, eta zoriontasun ideala. Hala, eredu horren etengabeko erreproduzioari eusten zaio. Kapitalismoak kultura kolonizatzea lortu du.

Bainahorrekezduesannahisistemahegemonikoari eusten dioten botereak lasai asko daudenik. Milurtekoaren hasierarik, logika horien eraginaz are kontzienteago da gizarte-mugimenduen eta herri-erakundearen erresistentzia, beren eskubideen alde egiteko, historian zehar egin izan duten moduan. Hala, erresistentzia horien artikulazioa zenbait dinamikatan garatzen hasi zen; horren adierazgarri izan ziren, adibidez, Munduko Gizarte Foroak (2001etik aurrera). Foro horrek, “beste mundu bat posible da” lelopean, “globalizazio kontrahegemoniko” baten aldeko borrokan eta kolektiboan aniztasuna biltzen du.

Une honetan, hain zuzen, ikuspegi lokal-globala¹ berariaz da ezinbesteko kategoria bat, errealtatea aztertzeko, mundua ulertzeko eta justizia sozialaren ikuspegitik gizartea eta kultura eraldatzeko aukerak gauzatzeko.

Eta, hain zuzen ere, ikuspegi horretatik eta horren azterketatik, kritika erradikala egiten zaio Iparra/Hegoa ardatzaren gainean finkatutako munduaren ikuspegi dikotomikoari, 60ko eta 70eko hamarkadetakoa mendekotasun-teoriekin hasitako garapenaren ikuskera modernoari eta lankidetzapolitikei. Azken horrek, ikuspegi efizientistenen eta teknizistenen goraldi honetan, lankidetzakerakunde mugimendu kritikoenak lankidetzeraldatzailea eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza diturraldeen defentsarako borroka eta subjektuak antolatzeke estrategiatzat. Ez dute tokiko eremuan bakarrik eragitea nahi; globalagoak eta erradikalgokoak izatea nahi dute.

1 Ikuspegi hori, gainera, lokalaren eta globalaren arteko harremana aitortzen du noranzko bietan, eta tresna teoriko eta praktikotzat finkatu da, Historian zehar gizartearen ustiapen, erresistentzia eta eraldaketa dinamika konplexuak interpretatzeko. Horregatik, 70eko eta 80ko hamarkadetakoa jada aipatu zuten zenbait pentsalarik tokiko desberdintasunak ezin zirela ulertu, baldin eta ez baziren desberdintasun horiek betiketozen zituzten egitura globalak kontuan hartzen. Pentsalari horiek dira Wallerstein (mundua-sistema) eta Samir Amin (garapen desorekatua, deskonexioa), besteak beste. Hau da, globalizazioaren aurreko garaian dagoeneko bagenituen tokiko eta munduko erlazio hori aintzat hartzen zuten analisi konplexuak. Honako hau planteatu nahi dugu: ikuspegi horrek noiz eragiten duen, bereziki, lankidetzeraldatzaileari eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari lotutako proposamenetan.



**Arrisku globalari aurre egiteko beharra.
Erresistentzia-mugimenduak, polarizazio
berri baten bilakaeraren aurrean**

Modernotasun berantiarra. XXI. mendeko lehen hamarkada hauetan ziurgabetasuna eta ondoez sozialaren hedapena izan dira nagusi. Izan ere, bata bestearen ondoren etorritako krisi hauek ez dira unean unekoak, egiturazkoak baizik, eta bizi dugun eredu kapitalista, patriarkal eta kolonialari datxekio. Gainera, ezinegona areagotzen du eredu horri lotutako problematikak hain handiak izateak, halako moldez non herritarren ekintzarako tarte txikia uzten baituten.

Modernitate berantiarraren mehatxuak honako hauek dira: krisi ekologiko sakona, klima-aldaketa, atzeraldi-susperraldi-krisi ziklo iraunkorrek eragiten duten ezegonkortasuna, muturreko polarizazio-dinamiketara itzultzea –beste garai batzuetan ere bizi izan ziren dinamika horiek, baina orain areagotu egin dira potentzia handien (Txina, AEB eta BRICS) arteko botere-lehian–, gerra-gatazka zaharren iraunkortasuna eta hainbat eskualdetan geopolitika birkonfiguratzeko ari diren beste dinamika berri batzuk agertzea... Azken hori agerikoa da Ukrainan, Israelek eragindako Palestinako genozidioan eta horren hedapenean (Libano, Siria...).

Hori guztia bat dator gerraren industrializazioa, konfrontazio nuklearraren mehatxua eta mundu mailako benetako gatazka militar baten aukera barne dituen dinamika batekin. Aurrean dugun egoera duela zenbait urte deskribatu zuen Beckek (2006), arrisku globalean dagoen gizartetzat.

Egoera horrek ez du besterik egiten, aipatutako ziurgabetasun eta ezinegon sentsazio hori areagotu baino. Horrek azaldu egin ditzake, neurri batean, eskuin muturreko ideologiaren joera autoritarioak eta gorakada. Ideologia horiek goraldi betean daude kontinente bateko eta besteko hainbat herrialdetan, eta oso kezkatuta gaude arrazistak, matxistak, xenoboak eta autoritarioak direlako. Horregatik, garrantzitsua dirudi Santiago Álvarez Cantalapiedrak (2022) “amorrudun” deritzonera jotzea, ondoezari aurre egiteko eta itxaropena sortzeko beharrezko osagaia baita, ekintza kolektiboa emantzipaziorantz bideratuta: “Aitortu beharrekoa da ondoezak amorruari eta haserreari bide emateko eta mundua aldatzeko duen gaitasun eraldatzailea” (12. or.).

Nondik jo behar dugun erabaki behar da, dena den, mehatxu globalen aurreko erantzunak norabide onean bideratzeko. Zein aukera dauden jakiteko, interesgarria izan daiteke, gure ustez, Giddensek

“ Begirada lokal-globalak planetako lurralde batzuei eta besteei eragiten dieten sistemak eta dinamikek nola funtzionatzen duten ulertzen laguntzen digu ”

egindako proposamena berreskuratzea. Hau ere duela zenbait urteko proposamena da, 2004koa², hain zuzen. Proposamen horretan 4 ereduko tipologia bat iradokitzen du, eta horrek kategorizatu egiten ditu globalizazioaren garaian modernitateak dituen arriskuetara egokitzeko erantzunak. Gure ustez, hein berean balio dezakete modernitate berantiarreko garai honetarako ere.

- Onarpen pragmatikoa. Munduan gertatzen dena gure esku ez badago, bizirautea da jarrera, argi egitea eguneroko bizitzako zereginak dakartzaten arazoak konpontzeari, ikuspegi indibidual eta praktikista batetik.
- Ezkortasun zinikoa. Antsietateak arriskuen aurrean sortutako inpaktu emozionalari aurre egiteko jarrera, munduaren aurrean nolabaiteko gogaitasuna adierazten duena.
- Baikortasun iraunkorra. Arituenganako guztizko konfiantza, ezagutza eta teknologia egokiekin arazo konponbidea haiek aurkituko dutelakoan.
- Konpromiso erradikala. Arazoen larritasunaz jabetuta, baina konponbidea behetik baino ez dela iritsiko sinetsita, erantzunak gizarte-mugimendu kritikoen zereginari egiten dio aipamen, herri-erakundeenei dagokienari. Izan ere, haien borroka, erresistentzia eta praktikaren bitartez erakutsi dute gaitasuna eta konpromisoa dutela arazo horiei aurre egiteko edo gainditzeko.

Azken horren alde egiten dugu, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren proposamenarekin bat. Izan ere, aukera ematen digu erantzunak artikulatzeko, eta erantzun horiek tokiko errealitateak eraldatu ahala, inpaktu globalak eragiten dituzte.

Gizartea aldatzeko proposamenetan ikuspegi lokal-globala txertatzeko gakoak

Galdera hauei erantzuten ahaleginduko gara: Zertarako txertatu beharko genuke ikuspegi lokal-global hori gure ekimenetan? Nola aberasten du bultzatu nahi dugun aldaketa? Zer aldaketa dakartza ikuspegi horri heldzeak, gure erakundeetan eta gurekin diharduten kolektiboetan eta pertsonetan?

Analisi lokal-globalak aukera ematen du munduan gertatzen ari dena kritikoki ulertzeko eta ekodependentziaz zein interdependentziaz jabetzeko

Globalizazio neoliberalak eta krisi sistemikoak agerian utzi dute antzeko arazoak ditugula munduko toki batean eta bestean, nahiz eta eraginak eta adierazpenak partikularrak diren, eta ondorioak ez datozen bat. Begirada lokal-globalak planetako lurralde batzuei eta besteei eragiten dieten sistemak eta dinamikek nola funtzionatzen duten ulertzen laguntzen digu.

Espazio batean eta bestean gertatutakoa logika zabalagoen parte da. Lokala-globala ikuspegi hori azterketa-abiapuntutzat hartzea, beraz, lagungarria da haren konplexutasunaz eta aldaketetara egokitzeko beharraz jabetzeko. Komunitate global baten parte gara, eta horregatik dugu interdependentzia hizpide. Garapen kapitalista estraktibistaren erudia jasanezin bihurtu da, eta ekosistemen suntsipena eta klima-aldaketa planetako lurralde guztiei eragiten dien errealitate bat dira. Hori horrela, gizarte guztiak tartean gaude harreman modu berri bat sortzeko, gizateriaren eta naturaren artean, non lehenbizikoak ez duen bigarrena ustiatuko. Krisi ekologiko horrekin batera, atzeraldi ideologiko handiko une batean gaude, eskuina indar handiagoa hartzen ari baitan munduan, eta kultura are totalitarioagoa, matxistagoa eta arrazistagoa ereiten ari baita.

Funtsezkoa da ulertzea gure inguru hurbilean zer itxura hartzen duten kapitalismoak, patriarkatuak eta kolonialismoak. Behin hori eginda, lotura egin dezakegu maila globalean gertatzen denarekin, aldaketei estrategikoki erantzuteko gai izateko. Iparra eta Hegoa izan behar dugu gogoan, elkarrekin lotuta. Horrela, egoerak zehaztu ahal izango ditugu,

2 Gómez, María Victoria eta Álvarez, Javierren lanean aipatua (2013). *El cambio social en la era de la incertidumbre. Una reflexión sobre teoría social*. Madrid, Talasa. 205.-206. or.

« Dimentsio globalak tokikoarekin duen loturaren bitartez ulertzea lagungarria da globalizazio neoliberala eta kolonialitatea erauzteko alternatibak planteatzeko »

eta kritikoki jardun, abiapuntutzat hartuta eragin handiko apustuak, justiziaren, emantzipazioaren eta bizitzaren iraunkortasunaren aldekoak.

Bereziki itxaropentsua ez den testuinguru horrek, hala ere, aliantza glokaletarako aukerak sortzen ditu. Halako aliantzak estrategikoak dira –aurrera-go ikusiko dugunez– ekintza mobilizatuak eragiteko, eta horien bitartez proiektu faxistei aurre egin eta printzipio ekosozialei men egiten dieten gizarteetarantz abiatzeko. Krisia, beraz, hausnarketa egiteko baliatu behar dugu, gure komunitate guztiei eragiten dien garapen-eredu harrapari horri buruz hausnartzeko.

Lankidetzaren sektorearen ohiturazko logikak zalantzan jartzen dituzten egiturazko aldaketak azpimarratzen ditu

Egungo garapen-ereduak egiturazko aldaketak behar ditu, trantsizio ekosozialetarantz abiatzeko. Ezin izango dugu gizakion eta naturaren artean antolatu eta guztion ongia lortu, baldin eta tokian gertatzen dena ez badugu maila globalean gertatutakoarekin lotzen.

Dimentsio globalak tokikoarekin duen loturaren bitartez ulertzea lagungarria da globalizazio neoliberala eta kolonialitatea erauzteko alternatibak planteatzeko. Lagungarria da, era berean, agerian jartzeko gure lurralde hurbileko aldaketek balio handia dutela dinamika eta egitura globaletan eragiteko. Arazo globalei aurre egiteko, oso estrategia interesgarria da tokian ditugun gaitasunak abiapuntutzat hartzea, sistemaren egiturazko aldaketetan erantzukizuna eta erantzunkidetasuna dagoela adierazten baitu.

Gainera, ikuspegi lokal-global hori erronka bat da nola Iparreko hala Hegoko gizartearentzat; izan ere, beharrezkotzat du elkarrekin lotutako alda-

keta erradikal eta sakonak egiten hastea. Aldaketa horiek, gainera, alderdi ugari inplikatzeko dituzte (ekonomikoak, politikoak, sozialak, ekologikoak, epistemikoak...) eta planetako lurralde guztiei eragiten diete. Iparraren eta Hegoaren arteko lankidetzaren logika gainditzen duen ikuspegia da.

Ikuspegi lokal-global horretatik, boterea eraldatu nahi duten eta benetan kritikoak diren lankidetzaproiektuek maila ugarian eragin ditzakete eragin politikoko eta gizarte-mobilizazioko prozesuak. Alde horretatik, lankidetzaren/hezuntzaren dikotomia gainditzeaz ari gara, sektore horrek berezkoegi, naturalegi baitu logika hori.

Ikuspegi lokal-globalak, gizartea eraldatzeko esangura handiagoa daukan jakintzarantz garamatza

Natural bihurtu ditugu gure gizartearen antolamenduari buruzko hainbat ezagutza. Oraingan, zalantzan jarri behar dugu ezagutza-sorta hori, gure planetaren mugak kontuan hartuko dituen kultura bat eraikitzeko. Beharrezkoa da kapitalismoa printzipio kultural unibertsal gisa desnaturalizatzea eta haren balio guztiak (indibidualismoa, lehiakortasuna, arrakasta, metaketa, merkantilizazioa, hiperkontsumoa, matxismoa, arrazakeria, antropozentrisismoa, ezagutza positibista...) desikastea. Horrela hautsiko dugu menderatze horrekiko konplizitatea.

Behar dugun jakintzak sozialki garrantzitsua izan behar du, eta tokiko kultura-aniztasunetik eraikita egon. Horrela, jakitera emango du zer gertatzen den, sistema-mundua ikuspegiarekiko. Gaitasuna izan behar du, halaber, herrirentzako emantzipatzaileak eta planetarentzat iraunkorrek diren proposamenak eraikitzeko. Ikuspegi hori lagungarria da ulerkera hau gainditzeko: mundua eraldatzeko ezagutza eta irtenbideak Iparrak dituela. GEHren arabera, pentsamendu bakar horren arabera sozializatu gaituzte, eta aurre egin behar diogu. Bestalde, saioak egiten behar ditugu gizarte-proiektu duin, feminista eta iraunkorretan.

Gizarte-aldaketan eragingo duen jakintza kritikoa goa sortzeaz ari gara. Zer ikuspegi dira ezinbestekoak prozesu honetan?

Ikuspegi dekoloniala. Modernotasunak oinarri hartu zuen jakintza/botere baten kolonialtasuna,

« kritikoki berrikusi behar ditugu mendebaldeko modernitatetik datorren gizarte-ereduaren oinarriak eta iruditeria »

ordena menderatzailea legitimatzeko mekanismo-tzat. Neutraltasuna lortzeko asmoz, prozesu sozial, kultural eta historikoetatik bakandutako ezagutza eraiki zuen. Eurozentrismoa eta androzentrismoa planetaren eta unibertsalaren paradigma bihurtu ziren. Hori horrela, kritikoki berrikusi behar ditugu mendebaldeko modernitatetik datorren gizarte-ereduaren oinarriak eta iruditeria (aurrerapena, ongizatea, garapena, demokrazia liberala...). Ezinbestekoa da honako hau aitortzea: norberaren kulturak baldintzatzen duela errealitatea aztertzeko eta alternatibak proposatzeko modua.

Kolonialitatea planetako hainbat lurraldetan jarduten duen botere globala da, konfigurazio berrien arabera. Iruditeria hori deskolonizatzeak Iparra eta Hegoa deskolonizatzea dakar. Izan ere, haien lurraldeetako esperientzia kolonialak eta jakintzaren/boterearen kolonialtasunak eragina izan du bertako komunitateen kulturen, ezagutzan eta antolamenduan.

Mendebaldeko modernitatea salatzeak ez du esan nahi eraldaketa Hegotik besterik etorritako ez dela pentsatu behar dugunik, hau da, populazio indigenetatik, afrikarren ondorengoetatik edo mendeko beste subjektuetatik etorriko denik. Lankidetzaren diskurtsoetan ere ikus daitekeen ikuspegi erromantizista eta esentzialista da hori. Gainera, Hegoari soilik begiratzeak zera esan nahiko luke: Iparren erantzukizuna saihestea eta leku geografiko horretan bizi garenok entzungor egitea, subjektu kritiko gisa dugun botere eta agentziari.

Begirada dekolonialaren helburua ez da soilik diskurtso akademikoetan eta lankidetzan islatutako jakintzaren kolonialtasuna arazotzat hartzea. Beste mundu batzuk ere posible egin nahi ditu, jardunbide emantzipatzaile eta dekolonialak abiapuntutzat hartuta. Gizartea eraldatzeko beharrezkoa da ezagutza eztabaidatzea, baina, era berean, ezinbestekoa da errealitatea eraldatuko duten, bizitzeko moduko bizitzak eraikiko dituzten eta naturarekin harreman harmonikoa

duten esperientziak abiaraztea. Eta, hain zuzen ere, eraldaketa abian da. Beharrezko dugu esperientzietatik begiratzea, berreskuratzea, komunikatzea eta zabaltzea, eta eragiteko beste oinarri batzuk darabiltzaten esperientzietatik ikastea. Esperientzia horiek dira lidergo komunitarioak, ekonomia eraldatzaile eta feministak, zintzo bizitzaren esperientziak, kontsumo jasangarria eta arduratsua, merkatu sozialak, ekoizpen kooperatibak, elikadura burujabetza, burujabetza energetikoa, finantza etikoak eta trantsizioan dauden hiriak, besteak beste.

Ezagutza kokatua eta jakintza-elkarrizketa. Ikuspegi lokal-globalak indartu egiten du ezagutza kokatuarekiko interesa, planteamendu totalizatzaile eta unibertsalistak aurkaratzeko. Ezagutza oro testuinguru jakin baten barruan gertatzen da, eta, beraz, eragina dute esperientzia historikoak, kulturalak, eguneroko bizitzako esperientziak eta subjektibotasunek. Komunitateen ezaugarriak, ikuspegiak eta diagnostikoak errespetatuz gero, aldaketek eragin handiagoa izango dute, eta iraunkorrak izango dira denboran zehar.

Donna Harawayk “ezagutza kokatuaz” dihardu, hau erakusteko: ezein ezagutzak ez duela dena ikusteko aukerarik ematen. Errealitatearen edozein alderdiren funtzionamendua azaltzeko lanaketak anitzak dira, eta herri baten eta bestearen historiak eragindakoak. Eraldatzeko ahalmen handiena duten praktikak lurralde jakin batean bizi garen pertsonen esperientziak eta jakintzak berreskuratzen dituztenak dira, beste latitudeetakoekin lotuta.

Ildo horretatik baieztatzen dugu ikuspegi lokal-globalari esker errazagoa dela komunitateen arteko ezagutzak eta esperientziak trukatzeko. Horrek aukera ematen du proiektuak aberasteko, eta ikuspegi berriak emateko, munduko arazo handiei aurre egitearen inguruan. Tradizioen eta testuinguruen aniztasunetik estrategia eraldatzaileetara jotzen duen horretan sakontzeko aukera ematen

« Ikuspegi lokal-globalak indartu egiten du ezagutza kokatuarekiko interesa, planteamendu totalizatzaile eta unibertsalistak aurkaratzeko »

“ Komunitate zabal bateko kide garelako jakiteak aukera ematen du ezagutza sortzeko eta sozializatzeko beste modu batzuk ezagutu eta aitortzeko ”

du. Nahiz eta elkartruke horrek pentsamolde konplexuetan nahasten gaituen, pentsamolde horiek jite sakon eta kolektiboa dute, sistema hegemonikoari aurre egiteko.

Epistemologia *bestelakoak*; Hegokoak, feministak, arrazakeriaren aurkakoak. Komunitate zabal bateko kide garelako jakiteak aukera ematen du ezagutza sortzeko eta sozializatzeko beste modu batzuk ezagutu eta aitortzeko. GEHren ikuspegitik, funtsezkoa da gizarte-eraldaketaren aldeko konpromisoarekin bat datozen erreferente epide-mikoetan pentsatzea. Erreferente horietako asko beste lurralde batzuetatik, beste herri batzuetatik eta gizarte-mugimenduetatik datoz.

Epistemologia *bestelako* horiek ezagutzea ez da besterik, begirada konplexu eta kritikoetatik

erreparatu eta interpretatzeko abagunea baino, hala nola Hegoaren ikuspegietatik, ikuspegi feministetatik, arrazakeriaren aurkako ikuspegie-tatik... Horiek guztiak ezinbestekoak dira ildo bakarreko pentsamenduak desikasteko eta beste pentsamolde batzuetara hurbiltzeko, zeharbi-deak hartuz.

Epistemologia feministek sistema kapitalista, kolonial eta patriarkalaren izaera “naturala” desikasteko tresnak ematen dizkigute. Androzentrismoari, neutraltasunari eta unibertsaltasunari kritika egitea estrategia horien parte da.

Bestalde, feminismo kritikoek desberdintasunarekiko eta nortasun-aniztasunarekiko errespetua azpimarratzen dute. Aniztasunarekiko sentikorra den tratamendu bat egiteko, beharrezkoa da ikuspegi feministak ikusmolde interseksionala hartzea; hau da, beste botere- eta menderatze-ardatz batzuk identifikatzea, generoaz gain (klasea, etnia, adina, sexu-orientazioa...). Ideia hori zehar dago lotuta ikuspegi lokal-globalarekin, kontuan hartuta ezagutza norbanakoan gorpuztuta eta dagokion testuinguru soziokultural eta politikoan errotuta ulertu behar dela.



“ ikuspegi feminista dekolonialak eta antiarrazistak estrategikoak dira munduaren ikuskera eurozentriko, androzentriko eta antopozentrikoari aurre egiteko ”

Era berean, sozializazio kritikoko prozesuetan arrasto handia uzten dute arrazakeriaren aurkako mugimenduek, indigenenek edo herriarenek, besteak beste. Izan ere, gizartea aldatzeko alternatibak egon daitezkeen ideari eragiten diote. Emakume arrazializatuek GGKE askoren arrazakeria salatu dute –eta horretan dihardute oraindik– generoa kultura menderatzeko mekanismotzat baliatzeagatik. Zalantza egite horretatik abiatuta, ikuspegi feminista dekolonialak eta antiarrazistak estrategikoak dira munduaren ikuskera eurozentriko, androzentriko eta antopozentrikoari aurre egiteko, gure garapen-eredua horietan oinarrituta dagoen aldetik.

Ikuspegi lokal-globalak komunitateak indartzen ditu, beren prozesu sozialei laguntzeko

GGKEak ez gara subjektu eraldatzaile gisa kokaturiko bakarrak, baina ekintza eraldatzailea helburu emantzipatzaile gisa aldarrikatzen dugu. Era berean, ez dugu “agente adituen” rolik onartzen, tradizionalki ulertu den moduan. Aitzitik, balio handia ematen diogu gure esperientziari, lehendik zeuden tokiko komunitateek metatutako esperientziak ere balio handia duen hein berean. Izan ere, luzaro dihardute borrokan eta ekiten, lankidetzara beren lurraldeetara iritsi baino lehenagotik. Gure lanak, ikuspegi lokal-global batetik, erantzun egin behar die haien eskaerei, lagundu egin behar die haien lurraldeetako prozesu sozialei, balioa eman behar die haien esperientziei eta teoriei, eta artikulazioa erraztu behar die beste latitude batzuetako kolektiboekin. Proposamenak elkarrekin eraikitzea da xedea, beren errealitate jakinetan aldaketa emantzipatzaileak eragin ahal izateko, planteamendu estraktibistetara jo gabe.

Premisa horretatik abiatuta, kontua ez da haiek proiektuan parte hartzea bultzatzen saiatzea –eta

horrela eragindako aldaketak beren egitea–, baizik eta benetan berena den proiektu bat sortzea. Proiektu horren men egin behar dio komunitatetik eta komunitatearentzat egindako azterketa bati, lotuta egon behar du ikuspegi globalarekin, eta barne izan behar ditu komunitatearen interes eta eskaerak. Planteamendu horrek, zalantzarik gabe, proiektuaren iraunkortasuna bermatuko du, eta mendekotasuna murriztuko.

Ikuspegi lokal-globalak erraztu egiten du subjektu eta lurralde desberdinen arteko aliantza kontrahegemonikoak sortzea eta/edo indartzea

Begirada lokal-globalak aukera ematen du beste lurralde batzuetako subjektuak eta gizarte-mugimenduak ezagutzeko, haien borrokak ulertzeko eta, lurraldean egiten duen lanetik abiatuta, prozesu globalekin lotzen duen ezagutza eraikitzeke egiten duten lana aitortzeko.

(Berriro) ezagutze horrek interesa pizten du lurralde bateko eta besteko hainbat subjektuen arteko sareak eta aliantzak eraikitzeke. Ezinbesteko tresna da hori, gaitasunak indartzen eta indarrak pila-tzen baititu, globalizazio neoliberalari eta nagusi den garapen-ereduari aurre egin dakien.

Kolektibo eta mugimendu sozial kontrahegemonikoekiko sareak eta aliantzak, borroka intersektionalen artikulaziotik jarduten dutenak (heteropatriarkatuaren, arrazakeriaren, bazterketaren, xenofobiaren eta abarren aurka), balio handiko esperientziatzat jotzen dira. Izan ere, botere hegemonikoaren ordezkotako proiektu baten eraikuntzan parte hartu ez ezik, ikaskuntza eraldatzaileak beren eragin-ingurunetik harago hedatzeko gaitasuna dute.

Nabarmentzekoa da sareko lanaren balioa; izan ere, funtzionatzeko modu horrek harreman horizontala sortzen du, esker oneko harremana, sarea

“ Proposamenak elkarrekin eraikitzea da xedea, beren errealitate jakinetan aldaketa emantzipatzaileak eragin ahal izateko ”

osaten duten erakundeen artean; konfiantzazko harremana, beraz. Sareko lana hurbilago dago nazioartekotasunetik, Iparra/Hegoak egindako ohiko lankidetzaz-jardunbideak baino. Izan ere, berdinen arteko truke-harremanak bultzatzen ditu, elkarrizketa kritikoak sustatzen ditu, eta ikaskuntza kolektiboak dakar aldean, norazko bietan (Iparretik Hegoa, Hegotik Iparrera).

Lokala/globala ikuspegiak aukera ematen du agenda komun bat eraikitzeko, aniztasunetik abiatuta, hainbat mailatan eraginez

Aurreko atalean aipatu ditugun aliantza eta sare horiek azterketa eta proposamenak sendotzen dituzte, lokala/globala abiapuntutzat hartuta. Hala, agenda komun bat eraikitzea ahalbidetzen dute, aniztasunean oinarrituta, formula egokiak identifikatzeko eta horiekin sistema neoliberalari maila globalean aurre egiteko. Tokiko borrokak eta borroka globalak lotzen dituen eta arazoei aurre egiteko proposamenak planteatzen dituen diagnostiko partekatutik abiatuta lan egitea estrategikoa da gizartea eraldatzeko.

Ekiten diharduten subjektuen eta kolektiboen aniztasunari esker, ezagutzara hurbiltzeko modu ugari har daitezke aintzat, bai eta aukera ugari ere, giza emantzipazioko esperientziak sortzeko.

Aniztasunaz jabetuz gero, errazagoa da sareak abian jartzea ikuspegi dekolonial eta intersektionala abiapuntutzat hartuta, beste bizi-diskurtso eta -esperientzia batzuk elkarrekin eraiki ahal izateko. Sare eta aliantza globalak sortzeak toki kritikoago batean jartzen gaitu, lankidetzaren eta hezkuntzaren inguruan darabiltzagun hizketa eta jardunbideak deskolonizatzeke, lankidetzaz eta hezkuntza egun ezinbestekoak diren aldetik.

Artikuluaz azaldu ditugun gako horiek guztiek aditza ematen dute ikuspegi lokal-globalak ahal-

“ Sare eta aliantza globalak sortzeak toki kritikoago batean jartzen gaitu, lankidetzaren eta hezkuntzaren inguruan darabiltzagun hizketa eta jardunbideak deskolonizatzeke ”

men handia duela gure konpresio- eta ekintza-gaitasunak areagotzeko. Begirada berri honek, beraz, aukera ematen du testuingurua eta errealitatea bere konplexutasun osoan kritikoki aztertzeke, eta hortik abiatuta, eta borrokan diharduten subjektu eta lurraldeekin artikulatuz, pluribertso *bestelako* baten oinarriak planteatzeko.

“ Sareko lana hurbilago dago nazioartekotasunetik, Iparra/Hegoak egindako ohiko lankidetzaz-jardunbideak baino ”



Argazkia: Hegoa.

Ekimen berriak behar ditugu: agian aldaketaren internazional bat, Foro sozialen tankerakoa

Montserrat Galcerán Huguet. Bartzelonako Unibertsitate Zentralean Filologia Klasikoan eta Filosofian lizentziatu zen 1968an, eta Heidelbergeko Unibertsitatean (Alemania) eman zien jarraipena ikasketei, Gadamer irakaslearekin. Filosofian doktoratu zen Madrilen, 1982an, eta 1993tik Filosofiako katedraduna izan da Unibertsitate Konplutentsean. 2015 eta 2019 artean Madrilgo Udaleko zinegotzi izan zen *Ahora Madrid* taldean, 2015eko maiatzean udal-hauteskundeak irabazi ondoren. 2019an hartu zuen erretiroa.

Bere ikerketa-ildoak Filosofiaren Historian zentratu dira; bereziki, filosofia modernoan eta garaikidean, marxismoan, feminismoan eta epistemologia kritikoan. Teoria postkolonialekiko eta deskolonialekiko interes bizia gehitu behar zaio horri. Duela urte batzuetatik hona, Unibertsitate Nomada erakundearen eta **Komunen Fundazioaren** kide da. Bi proiektu horien helburua da ikerketa eta mugimendu sozialen praktika uztartzea eta ikerketa parte-hartzailea eta auto-prestakuntza bultzatzea.

Bere argitalpenen artean daude: *La invención del marxismo*, Madril, Iepala, 1997, 2. argitalpena Traficantes de sueños etxean, 2023; *Silencio y olvido. El pensar de Heidegger durante los años 30*, Hondarribia, Hiru, 2004; *Deseo [y] Libertad*, Madril, Traficantes de sueños, 2009; *La bárbara Europa*, Madril, Traficantes de sueños, 2016; eta libururik berriena den *Activistas en Cibeles*, Madril, Traficantes de sueños, 2022, Udalean izandako esperientzia jasotzen duena.

Eraldaketa sozialerako hezkuntza- proposamenaren esparruan, tokiko/mundu mailako ikuspegiak gainditu egiten ditu munduari buruzko irakurketa sinplistik eta, era berean, gizarte- eta ingurumen-justiziarantz aurrera egiteko aukerak ematen dizkigu planeta honetan bizi garen herri guztioi. Nola funtziona dezake begirada horrek potentzia handien (AEB, Txina eta BRICS) arteko lehia-dinamiken eta mundu mailako gatazka militar baten mehatxuaren erdian?

Montserrat Galceran. Ikuspegi geopolitiko, gai horri heltzerakoan, ikuspegi distortsionatzailea da beti, makroa eta berehalakotasuna jartzen baititu mikroaren gainetik. Eraldaketa soziala eta eraldaketa horretarako hezkuntza, aldiz, mikroan eta epe luzeko prozesuetan zentratzen da gehiago. Horrek ez du esan nahi ikuspegi makroa alde batera utz daitekeenik. Ikuspegi horrek aldaketa esanguratsuak eragin ditzake, eta dezente baldintzatu ditzake indar-harremanak eta populazio-masa handien baldintza sozialak. Nolabait esateko, aldaketa horiek gauzen erreproduktzio arautu bat eteten dute, eta noraezeko uneak eta ustekabeko biraketa-uneak sortzen dituzte.

Hori esanda, argi dago herritarrak beldurtzeko erabiltzen den gerra globalaren mehatxu hutsak beldurra eragiten duela populazioan, eta *statu quo* mantentzea bihurtzen duela horizonte bakar. Ukrainako edo Israelgo gerrak lirateke gerra global horren kasurik hurbilenak guretzat, baina badira beste gerra batzuk abian, Afrikan batik bat.

Hala ere, beldur hori gainditzea lortzen badugu, uste dut gerra global (posible) baten ikuspegiak are gehiago behartzen gaituela munduaren beste lekuetako mugimenduekin lotzera, hango biztanleak, gu bezala, norgehiagoka ikaragarri horretara erakarriak izango dira eta. Ez guke onartu behar, inola ere, gerra hipotetiko bat. Horrek bertan behera utziko lituzke bakearen eta justizia globalaren aldeko ahaleginak, eta, gainera, hekatonbe bat izango litzateke mundu mailan, zenbat arma

“ gerra global (posible) baten ikuspegiak are gehiago behartzen gaituela munduaren beste lekuetako mugimenduekin lotzera ”

“ Eskuin muturra hazten ari bada, populazioaren hein handi batek etorkizuna oso beltz ikusten duelako da ”

nuklear dauden kontuan hartuta. Gerra eta gerrak ezartzen duen erregimena eteteko ezinbestekoa dirudi eraldaketa sozial handi batek.

Eskuin muturrak mundu mailan izandako gorakadaren ondoren, zer zentzu du gure komunitatean sozializazio kritikoko prozesuak bultzatzeak? Zergatik da garrantzitsua interdependentziaz eta ekodependentziaz jabetzea eta gure ikaskuntza-prozesuei aurre egiten dieten aldaketa kulturalan parte hartzea? Zer ikuspegi kritikok laguntzen dute guk jasotako pentsamendu bakarrari aurre egiten eta eraldaketa sozialerako funtsezkoa den jakintza batera hurbiltzen?

Montserrat Galceran. Hain zuzen ere, inoiz baino garrantzitsuagoa iruditzen zait hori, munduko elite zoro horien oldarkortasunak eta animo probokatzailleak “ez dago beste aukerarik” delakoan giltzapetu nahi baikaitu. Aitortzen dut konplexu samarra dela, irudi lukeelako, mehatxu horren aurrean, errazagoa dela dagoena defendatzea eta edozein eraldaketa-prozesu gerorako uztea. Gaizkirik txikiaren aukeratzea. Planetako bizitzari eustea eta eraldaketa soziala, ordea, ezin dira banatu. Eskuin muturra hazten ari bada, populazioaren hein handi batek etorkizuna oso beltz ikusten duelako da. Eta horrelako uneetan indarra hartzen du politika autoritarioaren aldeko atxikimenduak, arazoak konpontzeko biderik azkarrena eta eraginkorrena delakoan. Diskurtso horiek babesten dituzten pertsona asko ez dira konturatzen beraiek izango direla lehen biktimak. Hondamenditik salbatuko dela pentsatzen du norberak, baina ez da hala, egungo boteretsuek –AEBn eta beste herrialde batzuetan boterea erabiltzen ari diren milioidun horiek– ez baitute errespeturik munduko herrienganako. Politika autoritarioa haien mesederako izango da bakarrik, eta beste guztien kalterako. Biztanleria-geruza hori zenbat eta egoera ahulagoan egon, orduan eta tratu ankerragoa jasoko du boteretsuen partetik.

Aitzitik, interdependentziaren eta ekodependentziaren ideia indartzea lagungarria izan daiteke

pertsonentzat, hain egoera kritikoan “inor ezin dela bakarrik salbatu” ulertzeko. Senari jarraituz, pertsona askok solidarioki erreakzionatzen dute katastrofe handien aurrean, bizia arriskuan dagoenean. Eta, hala eta guztiz, behin arriskualdirik larriena igarota, berriz azaltzen dira erresumin zaharrak. Nire ustez, ideia hori indartuko bagenu nagusi den indibidualismoaren aurrean, hobeto prestatuta egongo ginatke egoera gogorrei aurre egiteko eta elkarri laguntzeko modu antolatua eratzeko: elkarteak, kolektiboak, sareak, plataformak, etab.

Garapenerako lankidetzako praktikaren barruan, oro har eta modu hegemonikoan, txertatuta dago ikuspegi desarrollista eta asistentzialista, eta horrek ez die protagonismorik ematen pobretutako gizarteetako pertsoneri eta kolektiboari, ezta haien jakintzei, ezagutzei eta bizimoduari ere. Nola gaindi dezakegu lankidetzan hain finkatuta dagoen Ipar/Hego dikotomia? Nola igaro gaitzke beste latitude eta kultura batzuetatik datozen antolamendu-planteamendu eta -eredu batzuetara?

Montserrat Galceran. Kolonialismo europarraren eta inperialismo amerikarraren oinarrian dago “mendebaldeko” ezagutza eta kultura lehenesten dituen diskurtsoa –mendebaldeko herrialde handietan nagusi den kultura–, eta ezaugarri hori beste edozein oinarriren gainetik dago. Menderatutako herrien kulturak diskriminatzeko eta isilarazteko operazio horrek justifikatu zituen kolonizazioaren gehiegikeriak, eta zibilizazio-zeregin gisa aurkeztu zuen kolonizazioa. Diskurtso horrek “garapenera” eredutzat hartzen zuen mendebaldeko zibilizazioa, eta gainerako herrialdeek, zaila izan arren, eredu hori lortu behar zuten. Beraz, gainerako herrialdeentzat komenigarria omen zen azpigarapenetik ateratzeko “laguntzak” jasotzea.

Hegoalde globaleko adituen azterlanek eta lanketa teorikoek erakutsi digutenez, eskema hori faltsua

zen; izan ere, “garapenera aldeko lasterketa” ahalegin amaiezina zen mendebaldeko potentzien parean kokatzeko, mendebaldeko potentzia horiek herrialde azpigaratuak baliabideak eta aberastasunak ustiatuz lortzen baitzuten aberastasuna eta boterea. Distantzia hura, hortaz, ezin zen ekidin. Zenbat eta aberastasun gehiago saldu garatzeko baliabideak eskuratzeko, orduan eta gehiago hondoratzen ziren; zenbat eta inbertsio gehiago eskatu, orduan eta zor handiagoa pilatzen zuten. Putzu horretatik ateratzeko bideak ez dira errazak, pobretutako herrialdeak ez baitira pobretuak baliabiderik ez dutelako, baizik eta haien baliabideak, ugariak izan arren, transnazionalen eta talde kapitalista handien esku daudelako eta ez dutelako biztanleentzako ongizaterik ekartzen.

Aditu postkolonialen edo deskolonialen begiradak aukera ematen digu arazo horiei kontrako ikuspegitik erreparatzeko eta kooperazioa, kasu askotan, herrialde aberatsen baliabide-iturri dela konturatzeko. Beraz, tentuz aztertu beharko lirake proiektuek zer baldintza eta ondorio dituzten, zein diren klausulak eta xehetasunak, zein diren benetako onurak bi herrialdeentzat eta zer dagoen lankidetzaren atzean. Era berean, proiektu guztietan oso ondo erreparatu beharko zaie proiektu horien eragina jasoko duten pertsonen ikuspegiari, eta ez da ziurtzat jo behar proiektuak, Ipar globaletik datozelako, onuragarriak izango direla, gerta baitaiteke hala ez izatea, ondorioak desegituratzaileak izatea edo kaltetutako biztanleentzat ondorio kaltegarriak izatea. Hain justu, teoriarik onuradun izan diren herri horietako asko oso kritikoak dira GGKEekin, eta atzetik datozen proiektu industrialen edo erazketa-proiektuen aitzindaritzat jotzen dituzte.

Onartzen dut egoerak konplexuak direla, baina *partner* guztien berdintasunetik eta errespetutik abiatu behar da, interes dibergenteak, baldin badaude, mahai gainean jar daitezten. Kontuak ematea eta finantzaketaren eta kudeaketaren gardentasuna ere funtsezkoak dira.

“interdependentziaren eta ekodependentziaren ideia indartzea lagungarria izan daiteke pertsonentzat, hain egoera kritikoan “inor ezin dela bakarrik salbatu” ulertzeko”

Dimentsio globala tokian tokikoarekin konektatuta ulertzeak aukerak ematen ditu, bertako gaitasunetatik abiatuta, globalizazio neoliberal eta kolonialitatea benetan ahulduko duten alternatibak planteatzeko. Tokiko eraldaketek zenbateraino indartu ditzakete nazioarteko borroak, eta alderantziz? Zure ustez, planetako lurralde

desberdinetako subjektuen arteko sareek eta aliantzek ekar ditzakete aldaketa emantzipatzaileak eta inpaktu globalagoak ekarriko dituzten ikaskuntzak?

Montserrat Galceran. Kapitalismoak hainbeste-raino baldintzatu du pertsona guztien eguneroko errealitatea, ezen zaila baita kapitalismotik kanpoko arloak egotea. Tokiko borrokek, askotan, beren lurraldeetan jarduten duten transnazional handiekin edo estatu boteretsuen indar antolatuarekin egiten dute topo. Etxebizitzaren aldeko borrokek, hiri global handietako kasu bat aipatzearen, inbertsio-funtsei eta haiek eragindako etxegabetzeei egin behar diete aurre. Erlazio horren ondorioz, alternatibak, kasu askotan, ezinezkoak dirudite. Nola egingo diete aurre nekazari pobretuek paperaren edo egurraren transnazional handi bati? Eta zer esanik ez energia-transnazional handi bati. Nola egingo diete aurre egoera ahulean dauden maizterrek inbertsio-funts handiei? Eta, hala ere, aurre egiten diete. Eta aurre egiten diete bizirauteko borrokan ari direlako. Ahaztu egiten zaigu zur-enpresek baso handiak moztu behar dituztenean, Indian gertatu zen bezala –Vandana Shivak maisuki kontaktzen du–, ez dutela kontuan hartzen baso horiek bertako herrien euskarri direnik. Edo izkira-hazkuntzaren erruz itsaso bat agortzen ari denik, bertako arrantzaleen kalterako. Berdin gertatzen da Viktoria lakuko karpa ospetsuekin, Afrikan. Horrelako adibide asko daude.

Beraz, bide horiek irudikatzea ez da zaila. Zaila dena da egunez egun horretaz jabetzea, batez ere praktika horiek isilarazten dituen kontsumo-gizarte batean. Bide batez, nazioan eta nazioartean loturak eta sareak eratzea oso produktiboa iruditzen zait, hori eginez jartzen baita fokua boteretsuek jartzea nahi ez duten lekuan: kapitalismo global horren jarduera harraparian. Oso teknologizatuta dagoen sistema harrapari horrek elikatzen du neurririk gabeko kontsumo-gizartea.

Herritarren mobilizatorako tarte txikia uzten duen eredu kapitalista, patriarkal eta kolonialean bizi gara, eta, hala ere, Ipar eta Hego globalizatuko lurraldeen arteko borroka eta erresistentzien artikulazioak omen dira noraez autoritario globala bideratzeko itxaropenak. Zure iritziz, zein da mugimendu sozial kritikoen zeregina egoera horretan?

“ nazioan eta nazioartean loturak eta sareak eratzea oso produktiboa iruditzen zait, hori eginez jartzen baita fokua boteretsuek jartzea nahi ez duten lekuan: kapitalismo global horren jarduera harraparian ”

Montserrat Galceran. Iruditzen zait oso zeregin garrantzitsua dutela, baina mugimendu sozialek muga batzuk dituzte. 2011ko mobilizazioek –M-15 Espainian, *Occupy Wall Street*en, udaberri arabiarrek, Grezian edo Turkian egindako mobilizazioak eta beste zenbait adibide– erakusten dute testuinguru jakin batzuetan mobilizazioak zabaldu egiten direla, baina aurrez jasan izan ditugun mugekin talka egiten dutela: batetik, errepresioaren gorakadarekin –Espainian oraindik indarrean dagoen mozal-legea– eta, bestetik, aldaketa sakonak eragiteko nolabaiteko ezintasunarekin. Gobernuak entzungor egiten badiete mobilizatutako jendeak planteatutako eskakizunei, erresumina eta frustrazioa sentitzen dute mobilizatuek.

Europako testuinguruan, zenbait alderdi politiko sortu ziren hauteskundeetan eta gobernuetan esku hartzeko, hala nola Espainiako Podemos edo Greziako Syriza, baina 2015eko esperientzia municipalistek ere ez zuten helburua lortu. Grezian txantaje makurra jasan zuten Europar Batasunetik, eta esperientzia zapuztuta geratu zen. Espainian badakigu zer gertatu zen Podemosekin eta gobernu municipalistekin; arrakasta batzuk izan bazituzten ere, azkenerako garaituak izan ziren. Porrot- eta desengainu-giro horretan kokatu behar da eskuin muturraren gorakada ere. Hegoalde globalen zenbait herrialdeetan, Latinoamerikan esaterako, gobernu aurrerakoiek neurri politiko itxaropentsuak ezarri zituzten urte haietan; adibidez, Lulak Brasilen edo Evo Moralesek Bolivian.

Hau da, galderari erantzun zehatzagoa emateko: mundu globalizatu batean, politika eraldatzaileen arrakastak eta porrotak espazio globalera iristen dira, eta ikasbide gertatzen dira beste leku batzuetan. Eta alderantziz. Gaur egungo erreakzio autoritario eta profaxista, horren guztiaren aurkako erreakzio gisa interpreta daitekeena, internazional kontserbadorearen sareen bidez ari da hedatzen. Esan genezake gatazka maila



Argazkia: Hegoa.

globalean, nazionalean eta tokikoan gertatzen dela aldi berean. Horregatik, elkartasun-borroka oro, Palestinari laguntzea kasu, norberaren mesederako ere bada, nahiz eta beti ez den erraza izaten lotura hori ikustea. Hala ere, elite globalek elkarri lotuta jokatzeko dute, eta borrokek, abian jartzen direnean, aldibereko marea gisa egiten dute bat. Ez dago dudarik horretan.

Esperientzia-trukeak, eraikuntza kolektiboa eta subjektu anitzen arteko artikulazioak ikasbide-tzat erabili izan ditugu eraldaketa sozialerako hezkuntzatik ari garen eragileok, eta estrategiatzat baliatu ditugu planetako hainbat lekutan proposamen emantzipatzaileak eraikitzeko. Zer eragin dute botere- eta pribilegio-harremanek Ipar eta Hego globaleko kolektiboen arteko topaketetan? Nola eraiki daiteke errespetuzko eta konfiantzazko harremanetan oinarritutako jakintza-elkarrizketa bat, aniztasuna eta ikuspegi dekoloniala txertatuz?

Montserrat Galceran. Boaventura de Sousa Santosek behin eta berriz azpimarratzen du Europako unibertsalismo tradizionala, supremazismo zurian oinarritua, oztopo bat dela kultura-aniztasunari heltzeko. Ideia hori hizkuntzen aniztasunarekin alderatzea gustatzen zait. Ez dago hizkuntza unibertsalik –matematika, logika edo antzeko hizkuntza formaletatik haratago–, hizkuntzak elkarri lotzen zaizkio, hibridatu egiten dira, batetik bestera itzuli behar dira “eta beti daude espazio ilunak itzulpenetan, ñabardura batzuk ezin baitira txertatu”. Modu berean lotzen dira kulturak elkarrekin, eta, horregatik, elkarren artean itzuli behar dira. Ez daude hierarkia bertikal batean, bata bestearen azpian, baizik eta elkarrekin batera, nola edo

hala. Hizkuntza-komunitateen arteko harremanak botere-eremu batean dauden heinean, hizkuntza/kultura batek beste kultura bat edo gehiago menderatzeko joera izango du, eta menderatutako kultura, biztanleriaren azpialdeko geruzei dagokiena, mendeko leku batean geratzeko da. Mendekotasun hori oso despotikoa edo apur bat despotikoa izan, mendeko kulturak adierazpen-eremu zabalagoa edo txikiagoa izango du.

Ikuspegi dekoloniala txertatzeak esan nahi du, lehenik eta behin, hizkuntzaren/kulturaren eta boterearen arteko erlazio berezi horretaz jabetzea. Botere hori, jakina, ez da batere sinplea. Eta asmo onarekin soilik ez dugu zertan den ulertuko. Izan ere, erlazio hierarkiko horiek beste hierarkia batzuekin korapilatuko dira, hala nola generoarekin eta arrazarekin. Beraz, Iparraldeko eragileek zuhurtziaz jokatu behar dute eta entzun egin behar dute, eta Hegoaldekoek, berriz, bidea ireki. Konfiantzazko loturak eratzea eta paternalismo-mota guztiak uxatzea ezinbestekoa da mende luzetako kolonizazioaren ondare tragikoa eta krudela onartzeko.

Ez da zeregin erraza, proiektu horietan lan egiten duten pertsona batzuk ez baitira gai beren asmo onek arbuioa eragiten dutela ulertzeko. Arbuio hori, ordea, ez da haienganako arbuioa, baizik eta mende askotako zapalkuntza kolonialaren ondorioa. Hala eta guztiz ere, badira esperientzia positibo batzuk oztopo horiek gainditzen dituztenak eta konfiantzazko eta elkarrekiko errespetuzko loturak sortzea lortzen dutenak.

Kolonialitatea planeta osoan eragiten duen botere globala da, nahiz eta bere adierazpenak desberdinak izan daitezkeen. Zer neurritan da posible planteamendu totalizatzaileak eta unibertsalistak gainditzea eta gure errealitateari, esperientziei eta subjektibotasunei lotutako hausnarketa piztea? Gai al gara gure kokalekuen segurtasunak zalantzan jartzeko, geure burua berrikusteko eta topaketa kritikoak bultzatzen dituzten beste epistemologia batzuei balioa aitortzeko?

Montserrat Galceran. Kolonialitatea botere-egitura bat da, baita egitura ekonomiko, politiko eta kultural bat ere. Pertsona batzuk nagusi edo menderatzeko gai izendatzen ditu, eta beste batzuk mendeko edo aurrekoen obeditzailerak. Arrazaren, generoaren

eta posizio geopolitikoaren arabera egiten du hori. Kolonialitateak, besteak beste, klasearekin, generoarekin eta arrazarekin korapilatzen ditu sailkapen horiek, eta denen artean menderakuntza partekatuen sare bat eraikitzen du, eta horrela lortzen du menderatzaile globalen interesen mende dauden herriak azpiratzea. Sare horretan populazio-geruza desberdinak daude, eta gerta daiteke mendeko populazio-segmentu batzuk bat etortzea menderatzaileekin interes jakin batzuetan. Esate baterako, gerta daiteke herrialde kolonialetako burgesia nazionalarekin bat etortzea, edota oso espezializatuta eta ongi ordainduta dauden langile batzuekin, gaur egun independenteak diren baina ordena globalean menpekoak diren herrialdeetan. Antzeko zerbait gertatzen da zaie intelektualei, baina modu konplexuagoan.

Lehen esan dudanez, mendebaldeko pentsamendu unibertsalista laguntza handia izan da kolonizaziorako, eta elkarrizketa emankorragoetarako oztopo ere bai. Ziurtasun horiek kolokan jartzeko moduan ote gauden galdetzen badidazu, zalan-tzarik gabe horixe egin behar dugula iruditzen zait. Zenbait teoriko deskolonialek “enuntziatio-subjektua”ri jaramon egitearen garrantzia azpimarratzen dute; hau da, ezbaian jarri behar da gizarte-zientzien edo kontakizun kulturalen usteko diskurtso “objektiboa”, eta diskurtso horren atzean nor dagoen ikertu. Ez soilik “zer” dagoen enuntziatioaren atzean, baizik eta “nork” hitz egiten duen, nork enuntziatzen duen enuntziatua. Subjektu enuntziatzailearen ikuspuntua aztertu behar da eta ez haren objektibotasun hutsa.

Eragiketa hori egitean ohartzen gara diskurtsoaren atzean dagoen subjektibotasuna ez dela subjektu klasikoari egozten zitzaien subjektibotasun neutroa, baizik eta, askotan, generoa, arraza, kokapena eta botere-mekanismoak kontuan hartzen ez dituen ikuspegi bat, horiek guztiak diskurtsoan txertatuta egon arren. Alegia, subjektibotasun hura testuinguruaren araberakoa da. Ariketa hori egitea oso oparoa iruditzen zait, eta “beste” diskurtsoak ulertzeko traba asko kentzen lagundu dezake. Ariketa horri esker ikus dezakegu lehen begiratuan gutxi garrantzat, inozotzat edo sinplizatatzat jo ditzakegun diskurtso horiek ematen digutela egungo gatazka kulturalen mugak hobeto neurtzeko aukera.

Amaitzeko, nola bideratu dezakegu mundu mailako deriba autoritario, arrazista eta matxista

“J. Reichman lagunak dioen bezala, asko gara Martera ihes egin nahi ez dugunak. Nahiago dugu Lurra zaindu, gure etxea baita”

kezagarria, eta nola eraiki ditzakegu gure lurraldeetan botere hegemonikoaren ordezkotako proiektuak? Subjektu kritikoak garen aldetik, zer gaitasun ditugu gure inguru hurbilenean jarduteko eta, maila globalean, egiturazko aldaketetarantz jotzeko?

Montserrat Galceran. Amaierarako utzi duzue galdera nagusia, “zer egin daiteke” klasikoa. Ez daukat makila magikorik, ezta kristalezko bolarik ere. Oraingoan, ahaleginean jarraitu. Eta feminismoetan esaten den bezala: “bitzita erdigunean jarri”. Ez dugu desbideratu behar diskurtso maltzurren eraginez. Diskurtso horien arabera, heriotzaren eta suntsipenaren bitartez babesten da etorkizuneko bitzita, suntsipen horren “ondoren” etorriko dena. Izan ere, esan dudan bezala, bigarren aukerarik ez izateko arriskuan gaude.

Hortaz, alde batera utzi beharko litzateke Schumpeterrek hain begiko zuen “suntsiketa sortzailea”, eta bizitzaren agerpen guztiak babestea hartu beharko genuke iparrorraztat. Horrek esan nahi du habitatak suntsitzen dituzten proiektuak baztertu edo, gutxienez, kolokan jarri behar direla, eta ez diegula biderik eman behar indarkeria arrazistarekin, genero-indarkeriarekin eta aporofobiarekin lotutako proiektuei, desberdin denarenganako gorrotoarekin eta indarkeriarekin lotutakoei. Eta hori egitean erabakiak hartzeko modu demokratikoak eta horizontalak errespetatu behar dira. Eki-men berriak behar ditugu: agian aldaketaren internazional bat, Foro sozialen tankerakoa. Bakearen aldeko kanpaina handi bat behar dugu egungo belizismoa geldiarazteko; elkartasun-kanpaina gehiago Palestinaren alde...

Hori guztia utopikoa dela esango dute, baina ez gaude utopiari uko egiteko moduan. Bestela, erantzuten ez badugu eta gaizki txikienari soilik errepertzen badiogu, irentsiak izango gara, eta agian planeta ere bai, gu guztiokin batera. J. Reichman lagunak dioen bezala, asko gara Martera ihes egin nahi ez dugunak. Nahiago dugu Lurra zaindu, gure etxea baita.

Nortzuk gara

- Granadan egindako Unibertsitate Hedakuntza Kritikoari buruzko I. jardunaldietan parte hartutako pertsona eta taldeak

Hemen aurkituko gaituzue • <https://www.hegoa.ehu.eus/eu/projects/33>

Granadako azken adierazpena

Unibertsitateak betidanik izan dira jakintzak ekoizteko eta gizarteratzeko guneak. Historian zehar, ezagutza sorleku izan dira, eta, batzuetan, botere dinamika nagusiak islatu eta iraunarazi izan dituzte; alabaina, pentsamendu kritikoa eta eraldatzailea hartzeko eta hedatzeko ikastegiak ere izan dira.

Unibertsitatearen bi alderdi horiek (batetik, desperekotasunak erreproduzitzeko gunea bezala eta, bestetik, alternatibak eratzeko lekua bezala) agerian uzten dute erakunde ez- neutrala dela unibertsitatea, bi motatako interesek tenkatuta egonik: batetik, botere hegemonikoenak; bestetik, mugimendu kontrahegemonikoenak. Eztabaida horretan, konpromiso sendo bat dugu hartuta: unibertsitate publikoa ondasun komun gisa kokatzea, gure planetako gehiengoaren interesen eta eraldaketa ekosozialaren zerbitzura.

Hausnarketaz eta ekintzaz betetako etorkizun baten aldeko konpromisoa hartu baino lehen, ezinbestekoa da onartzea Antropozenoaren aroko globalizazio neoliberalerako fase hedakorrean bizi ditugun krisiak konplexuak, biziak eta larriak direla. Merkantilizatuta egonik gizarte harremanak eta ekoizpen zientifikoa eta hezkuntza alorreko baldintzatzen dituen ezagutza eredu bakar bat inposatzen den garai batean bizi gara. Eta egungo garaia halakoa izanik, komunikazio eta sozializazio dinamikak nabarmen areagotu dira, baina horrek ez du kontzientzia kolektiboa areagotu, guztiz kontrakoa baizik.

Errealitate horiek larriagotu egiten dira unibertsitatea eta ezagutzaren ekoizpena enpresen eta/edo produkzio kapitalistaren munduaren zerbitzura jartzera jo ohi delako, eragile horiek eta haien interesak gizartearen eta haien premien ordezkari hartuta.

Aitzitik, joera horiei aurre egin nahi dieten gizarte mugimendu emantzipatzaileen gorakada bizi dugu, ikuspegi antirrazista, feminista, ekologista eta antimilitaristetan funtsatua, besteak beste. Partaidetzan oinarritutako demokraziaren eta zientzia kritiko, ireki eta herrikoiaren aldeko ekimenak ere ugaritu egin dira, baita mundua bi-dezkoagoa eta jasangarriagoa izan dadin lortzeko erronkan aurrera egiteko alternatibak proposatzen dituzten ekimenak ere.

Egoera hori kontuan izanik, unibertsitateak posizio pribilegiatuan daude eraldaketa ekosoziala sustatzeko eragile gisa jarduteari dagokionez. Horretarako, Unibertsitatearen Hedakuntza Kritikoa, “unibertsitatearen funtsezko funtzio gisa (bere misio soziala biltzen duena) ulertuta”, birpentsatu eta indartu egin behar da, akademiaren eta gizartearen arteko zubiak eraikitze aldera.

Garrantzitsuena zera da, ezagutza harresi akademikoetatik kanpo eramateaz gainera, sustatzea jakintzen ekoizpena eta banaketa benetan noranzko bikoa izan dadin, komunitateetan sortutako eza-gutzak aintzat har eta balioets ditzan eta gizarte mobilizazioa eta botere herrikoiaren sorrera susta dezan.

Unibertsitate Hedakuntza Kritikoari buruzko I. Jardunaldiek¹ zera erakutsi digute, kontuan izanik egungo erronkak konplexuak direla, unibertsitateek gizartearen duten zeregina berriz definitzeko

1 Unibertsitate Hedakuntza Kritikoari buruzko I. Jardunaldiak “Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa. Herritartasun globala eraikitzeko konpromiso sozialaren proposamena, pandemia osteko testuinguruan”



Argazkia: Hegoa.

betebeharra eta aukera dute. Unibertsitate hedakuntza kritiko baten aldeko konpromisoa hartzean, gure garaiko arazo sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak konpontzen aktiboki laguntzeko erantzukizuna geure gain hartuta dugula berresten dugu, egungo dinamikak ulertzeaz gain, etorkizun alternatiboak irudikatu eta eraikiko dituen ezagutza bat sortuz.

Testuinguru horretan, egungo dinamika hegemonikoak berrikusteko konpromisoa hartzen dugu, bai eta unibertsitate hedakuntza kritiko baten oinarritzko ildoak txertatu, ezarri eta komunikatzeko konpromisoa ere, eta zehazki:

- Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren proposamenak praktikan jartzeko espazio, denbora eta

izeneko proiektuaren parte dira, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hegoa, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID, gaztelaniazko siglen arabera) finantzaketari esker. Hegoak Garapenerako Lankidetzaren Ekimenen Zentroarekin (CICODE) eta Granadako Unibertsitatearen (UGR) laguntzarekin garatu ditu jardunaldi hauek.

baliabide egokiak aldarrikatzen dituen mugimendu politiko-pedagogiko bat sortzea, unibertsitate-komunitateak, herri-mugimenduek eta gizarte-erakundeek osatutakoa.

- Eredu pedagogiko parte-hartzaileak eta aurreraztaileak eraikitzea, hezkuntza- eta gizarte-eragileen potentziala mobilizatzen bideratuta, izaera ekosoziala, feminista eta arrazakeriaren aurkako duen agentzia eraldatzailea sustatzeko.
- Demokrazia parte-hartzaileko dinamikak bultzatzea helburua izanik, testuinguru eta ezagutza eraikitzeko logikei buruzko eztabaida kritikoa sustatzea.
- Konplexutasun ekosoziala kontuan izanik, hainbat subjektu eta kolektiborekin jakintzak elkarriketan jartzeko espazioak sortzea. Ezagutza kokatua, kritikoa eta eraldatzailea elkarrekin eraikitzeko, “*bizitze ona*” filosofiaren proposamenak ardatz izanik.
- Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren unibertsitate-curriculumaren zati gisa integratzea eta bai irakasleen, bai kudeaketako, administrazioeko eta zerbitzu teknikarien (PTGAS gaztelaniazko siglen arabera) funtzioen barruan sartzea.



Argazkia: Hegoa.

- Ikasgelatik kalera eta landa-eremura irtetea, unibertsitatearen, gizarte- mugimenduen eta gizartearen arteko harreman horizontala berritzeko eta, helburu horrekin, Unibertsitate Hedakuntza Kritikoko jarduerak bideratzeko. Betiere, ikasleek, irakasleek eta PTGASEk jardueretan parte hartzeko baldintzak ziurtatuz.
- Komunikazio dialogikoa proposatzen duten Unibertsitate Hedakuntza Kritikoko jarduerak sustatzea, hizkuntza irisgarri eta ulergarria erabiltzen dutenak, askotariko kanalak eta kodeak integratzen dituztenak, eta ez bakarrik idatzizko tradizioan oinarritzen direnak, baizik eta artearekin lotutako adierazpen sortzaileko proposamenak sartzen dituztenak ere.
- Ikasle-ekimenak sustatzea, unibertsitate-komunitate osorako topaguneak sortuz, Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren inguruan eztabaidatzeko, elkarri entzuteko, jarduerak prestatzeko eta ideiak trukatzeko.
- Ideologia eta egitura hegemonikoen kontra jotzen duen komunikazio eraldatzaile eta desobediente bultzatzea, bizitzak erdigunean jartzen dituen komunikazioa sustatuz eta Unibertsitate Hedakuntza Kritikoko jarduerekin sortutako inpaktua eta emaitzak komunikatzeko mekanismoak sortuz.

Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa sustatzera gonbidatzen ditugu unibertsitateko kide guztiak, gizarte mugimendu oro eta gizarte osoa ere. Izan ere, benetako aldaketa lankidetzatik, elkarrekiko errespetutik eratu behar da, elkarren artean eza gutza emantzipaziorako eta gizarte-eraldaketarako tresna bilakatuz.

Adierazpen hau amaitu nahi dugu une honetan Israelgo Estatuak Palestinako Herriaren aurka egiten ari den genozidioa gaitzetsiz. Espainiako Estatuak hainbat unibertsitate-komunitatetan egindako kanpaldiak eta mobilizazioak, bai eta unibertsitateen artean ehundutako sarea ere, Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren adibide garbia dira. Horregatik, bake kritikoarekin konprometitutako mundu baten defentsan eta eraikuntzan egindako lana aitortzen dugu.

Jardunaldi honetan parte hartzen dugunok ere gure babes irmoa adierazi nahi diogu Palestinari: bere herriari, Estatuari eta askapenaren aldeko borrokari ere.

Granadan onartua, 2024ko maiatzaren 24an,
Unibertsitate Hedakuntza Kritikoari buruzko
I. Jardunaldien baitan



Nortzuk gara

- Granadako Unibertsitateko Ikerketa eta Lurralde Ekintzako Laborategia

Hemen aurkituko gaituzue

- <https://blogs.ugr.es/liate>

Zergatik da beharrezkoa trantsizio energetikoa deskolonizatzea?

Gerra-garaian gaude, eta trantsizio energetikoa lortzeko hainbat aukera alternatibo eskatzea erronka bihurtu da. Estatu Batuetako inperialismoaren bihotzean faxismoak izan duen gorakadaren aurrean gaude, eta haien diskurtso negazionistek atzerapausoa adierazten dute planetaren tenperaturaren igoera arintzeari dagokionez. Horrez gainera, kontuan hartu behar da Trumpek Tesla ibilgailu elektrikoaren enpresako handikiarekin duen harremana. Horrela, krisiak saihesteko bideratu diren trantsizio ekosozialen prozesuak antolatzen auzkeren aurkako eraso egiten da. Nazioartean hori gertatzen den bitartean, Europar Batasunak itun berdeak edo Green New Deal izenekoak sustatzen ditu. Akordio horien bidez, nagusiki ekonomiaren elektrifikazioan oinarritutako trantsizio sozioekologikoak hitzeman nahi ditu. Hain zuzen ere, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerrak bizkortu du herrialde multzo horretako trantsizio energetikoko politika. Hala ere, programa horren helburua izan da Hego Globalean eta Europako periferietan azpiegitura fotovoltaiko eta eoliko gehiago jartzea.

Ospatu genezake Estatu Batu negazionistaren aurrean trantsizio energetikoa proposatzen duen jarrera hegemoniko bat dagoela; hala ere, azken horrek baditu arazo batzuk, kolonialismoarekin lotutakoak barne, kolonialismo energetikoari buruzko gure liburuetan deskribatu dugun bezala (*Colonialismo energético*, Ona ediciones, 2024; Icaria, 2023). Horrez gainera, ezin dugu ahaztu trantsizio energetikoaren ideia hegemonikoen izaera guztiz arrazista dela. Horri buruzko eztabaidak xeheki idatzi dira Josefa Sánchez Contrerasen *Despojos Racistas* liburuan (Anagrama, 2025).

Beraz, testu labur honen helburuetarako, izenburuko galderari erantzun nahi diogu. Horretarako, energia berriztagarrien megaproiektuak eraikitze-ko logika kolonialen zirriborroa egingo dugu, eta trantsizio energetikoaren deskolonizazioari buruzko ildo batzuk azalduko ditugu.

1. Megaproiektuen eta elektrifikazioaren oinarria estraktibismoa da

Azpiegitura eolikoak eta fotovoltaikoak, elektrifikazio masiboko planekin batera, oso estraktibistak dira, mineral kantitate handiak eskatzen baitituzte, hala nola burdina, aluminioa, kobrea, litioa eta lur arraroak (Capellán-Pérez et al., 2019). Horren adierazpenetako bat da Latinoamerikan, Afrikan eta Asian estraktibismoa esponentzialki handitu izana, baita Ipar globaleko periferietan minak ireki edo berriro zabaldu izana ere.

Bestalde, energia berriztagarriko megaproiektu horietako batzuk meatzaritzako industria hornitzeko erabiltzen dira zuzenean; eta horretarako, modu negatiboan arrazializatutako biztanleak beren lurretatik botatzen dituzte. Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharan gertatzen da hori. Han, 2013tik martxan dagoen Foum el Oued parke eolikoak (50 MW) (Hamouchène, 2024; Western Sahara Resource Watch, 2021) Marokoko fosfato-enpresa estatalak (OCP) Bou Craa meategian Mendebaldeko Saharako fosfato ez-berriztagarrien erreserbak erauzteko behar duen energiaren % 95 ematen du. Tehuantepecoko istmoaren kasua ere bada (Oaxaca, Mexiko). Han ekoizten den energia berriztagarria zementu- eta meatze-konpainiek –besteak beste, CEMEX, Holcim, Grupo México eta Minera Autlan– kontsumitzen

dute. Azkenik, Norvegiako samien lurraldeetan instalatutako megaproiektu eolikoak Hego globaleko aluminio-fabrika bat hornitzen du (Fjelheim, 2024). Hain zuzen ere, aluminioa –fabrika horretatik ateratakoa, adibidez– trantsizio energetikorako funtsezko mineraletako bat da.

2. Megaproiektuak eta lurrak kentzea

Energia berriztagarriek Itzulera Energetikoaren Tasa baxua dute (Hall, 2014), hau da, azpiegitura handia behar dute energia ekoizteko. Eta, horren ondorioz, azpiegitura horrek azalera handia hartzen du. Hala, eguzki-energia fotovoltaikoaren batez besteko lurzoru-beharrak 2,2 eta 3,8 ha/MW artekoak dira, eta energia eolikoarenak, berriz, 10,3 eta 50 ha/MW artekoak (Kiesecker, *et al.*, 2020; Delgado, 2021; Sánchez Contreras, *et al.*, 2024). Hain zuzen ere, Ritchie eta haren kolaboratzaileen arabera (2021), lurzoruaren erabilerran izandako aldaketen muga konponezina da (Ritchie *et al.*, 2021).

Energia berriztagarriak ekoiztearen berezko ezauzgarri horiek kontuan hartuta, lurzoru merkeak bilatzen dira edo lurrak kentzea erabakitzen da, batez ere, modu negatiboan arrazializatutako pertsonak bizi diren lekuetan. Horixe da Palestinako lurralde okupatuaren kasua; izan ere, Israelgo armada, kolono paramilitarrak eta enpresa sionistak zein nazioartekoak energia berriztagarrien megaproiektuak garatzen ari dira, nagusiki fotovoltaikoa Zisjordanian eta eolikoak Siriari okupatutako Jawlanen (Golan hebreeraz). Megaproiektu horien eraginez, Palestinako herriaren lurrak kentzea indartzen da, eta Israelgo erakunde sionistari energia ematen diote; aldi berean, jasangarritasunerako inbertsio gisa erabiltzen dira, Palestinako genozidioaren garbiketa berdea egiteko (Alkhalili, *et al.*, 2023).

3. Megaproiektuak, enpresa handiak eta logika esportatzailea

Beste megaproiektu batzuekin gertatzen den bezala, 5 MW-eko potentzia instalatua gainditzen duten energia berriztagarria ekoizteko fabrikak enpresa handien jabetzakoak dira ia erabat, eta enpresa horiek dute eraikitzekeo finantza-gaitasuna eta kreditua eskuratzeko aukera, eta, horrez gainera, estatuak alde dituzte ekoiztutako energia saltzeko.

Periferietan eta, batez ere Hego globalean, enpresa inbertitzaile nagusiak atzeritarrak dira. Bestal-

de, megaproiektu horiek logika esportatzaileari ere jarraitzen diote, eta, beraz, ekoiztutako energia ez da meatzaritzako estraktibismoaren hornidura-oinarria soilik, kontsumo-zentro handietara ere esportatzen da, barne-kolonialismoaren logikei jarraiki, hala nola Tehuantepeceko istmoaren kasuan (Oaxaca, Mexiko) edo kolonialismoa nagusi den zenbait lekutan, esaterako, Israelgo erakunde sionistak okupatutako lurralde palestinarren eta siriarren kasua, edo Marokok okupatutako Mendebaldeko Sahararen kasua.

4. Trantsizio energetikoaren deskolonizatorako zenbait ohar

Energia berriztagarrien megaproiektuak kolonialak dira –kontuan hartzen badugu nola ari diren kentzen negatiboki arrazializatutako biztanleak bizi diren Hego globaleko lurraldeak–, baina, horrez gainera, ez dira batere eraginkorrak.

Krisiak ez dira konponduko krisia sortu duten dinamika berdinekin; izan ere, trantsizio ekosozialak eta “garapen jasangarriak” ezin dira eraiki logika genozida, bortitz eta suntsitzaileen gainean. Beraz, trantsizio energetikoaren deskolonizazioa beharrezkoa da, Hego globaleko lurraldeak kentzeari utzi eta askoz eraginkorragoa izango dena.

Bidezko energia-trantsizio bat da, nagusitasun energetikoa eraldatzera bideratua, eta galdera hauek ditu ardatz: Zertarako energia?; Norentzako energia?; Nola? Horren ondorioz, mundu mailan eta herrialdeen barruan nagusitzen den energia-eskuragarritasunaren desberdintasunarekin lotutako desberdintasun ekonomikoari erantzungo genioke.

Lehenik eta behin, beharrezkoa da lpar globalaren eta munduko kontsumitzaileen kontsumoa murriztea, gehien kontsumitzen eta kutsatzen duten industriak barne, hala nola garraioa, siderurgia edo teknologia berriei lotutakoak.

Bestalde, elikadura-burujabetzaren alde egin behar da, eta gaur egun energia-kontsumo handiak eragiten dituzten elikadura-sistemak birkokatu behar dira, nekazaritza-esportazioko industria-ekin lotura zuzena baitute. Azkenik, beharrezkoa da subiranotasun energetikoaren alde egitea, teknologia berriztagarri ez-elektrikoak berreskuratuz eta energia berriztagarri elektrikoaren erabilera bantatua eta sarekoa bultzatuz.



Josefa Sánchez Contrerasesk utzitako irudia.

Bibliografia

Alkhalili, Noura, Dajani, Muna, Mahmoud, Yahia, (2023): “The enduring coloniality of ecological modernization: Wind energy development in occupied Western Sahara and the occupied Syrian Golan Heights”, *Political Geography*, Volume 103, 2023,102871, ISSN 0962-6298, <https://doi.org/10.1016/j.polgeo.2023.102871>.

Capellán-Pérez, Íñigo, De Castro, C. eta Miguel González, L. J. (2019): “Dynamic Energy Return on Energy Investment (eoir) and material requirements in scenarios of global transition to renewable energies”, *Energy Strategy Reviews*, 26. libk.

Delgado, Ana (2021): “El estudio de la biodiversidad en la instalación de energías renovable” in *Seminario: Transición energética y conservación de la biodiversidad*, Asociación Española de Evaluación de Impacto Ambiental, (2021eko ekainaren 22an egindako kontsulta). Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3XI6QeY>

Fjellheim, Eva, “Proyecto Fosen en los territorios Sámi de Noruega” in Sánchez Contreras, Josefa, Matarán Ruiz, Alberto (2023): *Colonialismo energético. Territorios de Sacrificio para la transición energética corporativa*, Ed. Icaria, Bartzelona, 105.-118. or.

GeoComunes(2021): “Alumbrar las contradicciones del Sistema Eléctrico Mexicano y de la transición energética: Preguntas clave para entenderlos y construir otros modelos energéticos”. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3GSuBdj>

Hamouchène, Hamza (2024): “Decolonising the Energy Transition: The South American Lithium Triangle as a Test Case” in Lang, Miriam, et al. *The geopolitics of green colonialism. Global Justice and Ecosocial Transitions*. Pluto press.

Kiesecker, Joseph, Baruch-Mordo, Sharon., Heiner, Mike, Negandhi, Dhaval., Oakleaf, James, Kennedy, Christina. eta Chauhan, Pareexit, (2020): “Renewable Energy and Land Use in India: A Vision to Facilitate Sustainable Development”. *Sustainability*, 12. libk., 281. or.

Ritchie, Hannah (2021): “The world has lost one-third of its forest, but an end of deforestation is possible, Our World in data”. Hemen eskuragarri: <https://bit.ly/3ZLnTOY>

Sánchez Contreras, Josefa (2025): *Despojos racistas. Hacia un ecologismo anticolonial*, Bartzelona, Anagrama.

Sánchez Contreras, Josefa, Matarán Ruiz, Alberto (2023): *Colonialismo energético. Territorios de Sacrificio para la transición energética corporativa*, Bartzelona, Ed. Icaria.

Sánchez Contreras, Josefa, Matarán Ruiz, Alberto (2024): *Colonialismo energético*. Mexiko, Ona ediciones.

Josefa Sánchez Contreras
eta Alberto Matarán Ruiz

begirada konprometituak

zinema
dokumentalak

Izenburua: ¡Reclama tu mercado!

Lekua, urtea: Espainiar Estatuak, 2024

Ekoizpena: Justicia Alimentaria eta Dies d'Agost

Zuzendaria: Justicia Alimentaria

Iraupena: 18 minutu



Sinopsia. “¡Reclama tu mercado!” dokumentala “Justicia Alimentaria” erakundearen kanpaina globalaren ekintza bat da. Dokumentalean —kanpainaren izen bera du—, udal-merkatuen sarea defendatzen eta eraldatzen da, supermerkatu-kate handien kanibalismoaz eta ezkutuko pribatizazioaz inguratuta baitago. Ikus-entzunezko lan honen azken helburua da gure udal-merkatuak defendatzeko beharrari buruzko eztabaida soziala zabaltzea, eta egoera historiko, politiko, ekonomiko eta sozialak bultzatuta ia itzulerarik gabeko egoerara eramaituzten arrazoiak ulertzea. Era berean, merkatuen egoerari heltzen zaio klase eta genero ikuspegitik, eta elikadura subiranotasunaren eta justizia sozialaren gaitetik. Ohiko komunikabideek erakutsi ohi duten ikuspuntu berritzailea da (Justicia Alimentaria).

Hemen eskuragarri: <<https://justiciaalimentaria.org/estrenamos-documental-reclama-tu-mercado-ya-esta-disponible>>.

Izenburua: Zona Wao

Lekua, urtea: Ekuadorreko Amazonia, 2024

Ekoizpena: Izaskun Arandia eta Nagore Eceiza

Zuzendaria: Nagore Eceiza Mujika

Proiektua: Medicus Mundi Gipuzkoa eta Medicus Mundi Araba

Iraupena: 25 minutu



Sinopsia. “Zona Wao” dokumentalak Ekuadorreko Amazonian petrolio-ustiaketak izan duen eragina erakusten du. Zenbait enpresa salatzen ditu —esaterako, Repsol—, komunitate indigenei, bereziki emakumei, eta ingurumenari eragindako kalteengatik. Dokumentalak kontatzen du jarduera horiek eskualdea “sufirimendu-eremu” bihurtu dutela, biodibertsitatea eta jatorrizko herrien existentzia mehatxatuz, gizarte-eta osasun-arazo larriak sortzeaz gain.

Gaur egun, giza eskubideen nazioarteko jaialdietan ari dira proiektatzen dokumentala, eta 2025eko irailean plataforma digitaletan estreinatuko dute publikoki, besteak beste, YouTube eta Vimeo. Horrez gain, justizia energetikoari buruzko hausnarketa kritikoa sustatzeko hezkuntza-erakundeetan eta fakultateetan ere aurkeztu dute (Medicus Mundi Gipuzkoa eta Medicus Mundi Araba).

Hemen eskuragarri: <<https://www.youtube.com/watch?v=kO-UzRsD1cU>> (trailerra)


argitalpenak

Izenburua: Abramos las cancelas. La lucha de las jornaleras de Huelva por otro modelo de agricultura

Egileak: Ana Pinto eta Nazaret Castro

Lekua, urtea: Madril, 2023

Argitaratzailea: La Laboratoria Sur de Europa



Sinopsia. Urtebete baino gehixeago iraun zuen ikerketa baten emaitza da argitalpen hau. Dena dela, urte askotako esperientziak biltzen ditu: alde batetik, Ana Pintorena, bere bizitzaren erdia Huelvako lursailetan lanean eman baitzuen; eta, bestetik, Nazaret Castrorena, nekazaritzako elikagaien sistema eta sistema horrek gorputzetan eta lursailetan zer eragin duten ikertu baitzuen. Testuaren ardatza Huelvako emakume jornalariak borrokan –gaztelaniaz, “Jornaleras de Huelva en Lucha” (JHL)– taldearen istorioa da, protagonistek lehen pertsonan kontatua. Hala ere, talde horri buruz hitz egitea Huelvako fruta eta fruitu gorriaren laborantzaren inguruko arazo ugariri buruz hitz egitea da. Gaur egungo egoerara nola iritsi garen adierazten da: emakume jornalari beteranoek azaltzen dute zein desberdina zen landa-eremuko lana duela hamarkada gutxi batzuk; negutegietako lan-baldintza eskasak atzerritarrei buruzko legearen alderdi gaiztoetatik bereiztezinak direla aipatzen dute; eta kontatzen da erauzketa-ereduak ingurumen-inpaktu handia eragiten duela, Doñana lehortzen ari dela eta etorkizunean oinarrizko beharrak asetzeko ur-hornidura arriskuan jartzen duela (La Laboratoria).

Hemen eskuragarri: <<https://laboratoria.red/publicacion/abramos-las-cancelas-la-lucha-de-las-jornaleras-de-huelva-por-otro-modelo-de-agricultura>>.

Izenburua: El saqueo continúa. Pobreza y desigualdad extrema, la herencia del colonialismo

Egileak: Anjela Taneja, Anthony Kamande, Chandreyi Guharay Gomez, Dana Abed, Max Lawson eta Neelanjana Mukhia

Lekua, urtea: 2025

Argitaratzailea: Oxfam International



Sinopsia. 2024an, mila milioidunen aberastasun bateratua 2023an baino hiru aldiz azkarrago hazi zen. Egungo aurreikuspenen arabera, hamarkada bat barru bost bilioidun egongo dira. Aldiz, pobrezian bizi diren pertsonen kopurua apenas aldatu da 1990etik, krisi ekonomiko eta klimatikoak eraginda, baita munduko gatazkek eraginda ere.

Mila milioidunen aberastasun gehiena ez da ahaleginaren emaitza, arpilatzearena baizik: % 60 oinordetzan hartzen da, edo klientelismoak eta ustelkeriak markatzen dute, edo monopolio-botereari lotuta dago. Desoreka handiko mundu batean bizi gara, eta menderatze kolonialeko historia luzeak eragin handia izan du. Historia horrek mesede egin die, batez ere, pertsona aberatsenei. Pertsona pobreenek, pertsona arrazializatuak eta emakume eta talde baztertuek esplotazio sistematikoa jasan behar izan dute –eta jasaten jarraitzen dute–, eta horrek giza kostu ikaragarria dakar (Oxfam Internacional).

Hemen eskuragarri: <<https://www.oxfam.org/es/informes/el-saqueo-continua-pobreza-y-desigualdad-extrema-la-herencia-del-colonialismo>>.

erakundeak

Kolektiboaren izena: Kavilando. Gizartea eraldatzeko ikerketarako diziplinarteko taldea

Eragin-esparrua: Nazioartekoa

Web: www.kavilando.org



Borrokaren ideialak. *Kavilando apustu kolektiboa da, eraldaketa sozialari, bizitza duinari eta pertsonen eta kolektiboen ahalduzeari ekarpena egin nahi diona, ikerketaren, prestakuntzaren eta komunikazioaren bidez, ikuspegi kritiko eta emantzipatzaile batekin. Helburu espezifikoaren artean, hauek nabarmentzen dira:*

- Errealitateak eta haien testuinguruak hobeto ulertzen lagunduko duten ikerketa-prozesuak garatzea, komunitateen antolaketa- eta politika-gaitasuna indartzeko intsumo gisa.
- Gizarte-prozesu autonomoak dinamizatzeko pedagogiei buruz hausnartzea eta horiek identifikatzea.
- Eraldaketarako errealitate sozialari buruzko kontzientzia kritikoa hartzeko ekarpena egitea.
- Komunitateen antolakuntza- eta politika-gaitasuna indartzea, bizitza duinerako, aniztasunarekiko errespeturako, ingurumenerako eta lurraldeen iraunkortasun eta plangintza propiorako ekintzak ahalbidetuz (Kavilando).

Kolektiboaren izena: Palestinaren aldeko unibertsitate-sarea

Eragin-esparrua: Espainiar Estatuak

Web: www.redxpalestina.org



Borrokaren ideialak. *Palestinaren aldeko unibertsitate-sareak –Espainiar Estatuko 50 unibertsitateetatik 46k osatzen dute– Israelgo Estatuarekin harremanak hausteko premia larria dagoela azpimarratzen du unibertsitate-esparruan eta ikerketa-proiektuetan. Konpromisoak:*

- Inbasio, kolonizazio, menderatze, espoliazio eta/edo garbiketa etniko ororen aurka lan egitea.
- Espainiar Estatuak eta haren erakundeek, unibertsitatekoek barne, Israelgo Estatuarekin dituzten lankidetzak-harremanak eustearen aurka egitea.
- Gure erakunde akademikoetako agintarien konplizitate genozida salatzea, legezko betebeharrak errespetatzen ez badituzte.
- Palestinako paradigma ez dela “auzi konplexua”, ezta “konpondu ezin den gatazka” ere komunikatzen jarraitzea, batzuen beharren arabera zaildu den gai sinple bat baizik.
- Ikasi, ikertu, eztabaidatu eta irakatsiko duen akademia baten zerbitzura lan egitea, tokiko errealitateak eta errealitate globalak mundu bidezkoago baterantz eraldatzeko (Palestinaren aldeko unibertsitate-sarea).

ezinbesteko
agenda



Ekitaldia: Hezkuntza Kritiko eta Inklusiboaren Nazioarteko 4. Kongresua.
Gizartea eraldatzeko hezkuntza kritikoaren alde

Antolatzailea: “Aniztasunaren Kultura eta Eskola” ikerketa-taldea, “Irakasleak, Komunikazioa eta Hezkuntza Ikerketa” ikerketa-taldea, Hezkuntzako Profesionalak Prestatzeko Ikerketa Institutua eta Málaga Unibertsitateko Aniztasunaren Kultura eta Gizarte Justizia Katedra

Lekua eta urtea: Málaga, 2025eko irailak 26 eta 27

Informazio gehiago: <<https://educritica2025.jimdosite.com>>

Gure ikuspegitik, hezkuntzaz hitz egiteak ezinbestean ekarri beharko luke haren izaera kritiko eta inklusiboaz hitz egitea. Ikuspegi horretatik helduko diogu kongresu honetako edukiari. Esaldi honetan sinesten dugu: “Beste hezkuntza bat posible da beste mundu posible baterako”. Edo, agian, “beste mundu desiragarri baterako” ere esan beharko dugu, beste mundu batekiko konpromiso argia baitakar, mundu honetan bizi garen guztiontzako helburu unibertsal gisa. Horren arabera, 5 ardatzen inguruan antolatu dugu kongresua, hain zuzen ere, egun aurre egin beharreko 5 mehatxu handien inguruan, eta hezkuntzak (kritikoa eta inklusiboa) gai horiei erantzuna beharko lieke: politikak eskuinerantz egitea; nazioarteko gatazkak eta zibilizazio-krisia; gizarte-bazterkeria eta heteropatriarkatua; ekonomia kapitalista eta pobrezia hazkundera; eta naturaren ustiapena (Educritica´25).



Ekitaldia: Ekonomia Feministari buruzko IX. Kongresua.
Ekonomia feministak kapitalismoaren aurrean: analisia eta alternatibak

Antolatzailea: Espainiar Estatuko Ekonomia Feministaren Sarea

Lekua eta urtea: Sevillako Pablo de Olavide Unibertsitatea, 2025eko urriak 2, 3 eta 4

Informazio gehiago: <<https://congresoekonomiafeminista.org>>

“Kapitalozeno” terminoa “Antropozeno” kontzeptuarekiko kritika gisa proposatzen da. Bigarrenak iradokitzen du gizateria osoa, maila berean, dela ingurumen-aldaketen erantzule, baina kapitalozenoak nabarmentzen du aldaketa horiek sistema kapitalista globalak bultzatzen dituela nagusiki.

Ekonomia Feministaren IX. Kongresuan kapitalozenoaren gaurkotasunari buruz hausnartu nahi dugu ekonomia feministen hainbat ikuspegitatik, eta arreta berezia jarri nahi diegu munduko- iparraldeko zein hegoaldeko- hainbat hiri- eta landa-lurraldetan klase-, etnizitate- eta genero-zapalkuntzek dituzten elkarrekintzei (Ekonomia Feministaren Sarea).

matxino artean
en rebeldía

Unibertsitate hedakuntza kritikoa

Historikoki, unibertsitateek 3 eremutan sailkatu izan dituzte euren funtzioak: irakaskuntza, ikerketa eta hedakuntza.

Hirugarren funtzio hori, "unibertsitate hedakuntza", deitu izan zaio, baina egun pixkanaka-pixkanaka "ezagutzaren transferentzia"-ren ordeztzatzen ari da (egungo Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoan, unibertsitateen plan estrategikoetan, diskurtsoetan eta abarretan).

Alabaina, "transferentziaren" eta "unibertsitate hedakuntzaren" proposamen politikoa nabarmen ezberdinak direla uste dugu. Transferentziak unibertsitatean eta unibertsitateak sortutako ezagutza gizartera proiektatzeko jomuga du. Horretarako, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoak berak jasotzen duenez, unibertsitatea "ezagutzaren ekoizle eta hedatzaile nagusi" gisa kokatzen da. Aitzitik, unibertsitate hedakuntzak, zentzu kritiko batetik, harreman dialogikoa proposatzen du unibertsitatearen eta gizartearen artean, non biak ezagutzaren ekoizletzat har daitezkeen eta elkarrekin lan egin dezaketen egungo gizartearen erronkak gainditzeko.

**Biratu orria eta gure posizionamendua hobeto ezagutu Granadako azken adierazpenaren bidez (2023)*



Aldarrikapenak:

Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren kontzeptua berreskuratzea, ezagutzaren transferentziatik argi eta garbi bereizitako proposamen gisa.

Unibertsitatea birpolitizatzeke hedakuntzak duen balioa aintzat hartzea, haren ikuspegiari, misioari eta balioei zentzu kritikoa emateko gaitasuna ezagutaraziz.

Funtzioen integralitaterantz aurrera egitea. Unibertsitate Hedakuntza Kritikorako proposamenetatik abiatuta, hedakuntza curriculumean txertatzea eta ikerketa birdimentsionatzea.

Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremana sendotzeko estrategiak eta baliabideak izatea, Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren proposamenaren ildotik.

Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren potentzialari, ezaugarriari eta modalitatei buruzko eztabaida zabaltzea.